

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko abuztuaren 26a

90. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru lege proposamena, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarria indargabetzen duena. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai aurkeztu dute (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Parlamentuarekin batera pertsonatu dadin 4285/2013 konstituziokontrakotasuneko errekurtsoren defentsan. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitie "Navarra Directo" telebista-programako langileei eta programa horrek egindako zabalkunde lana aitortzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu ETA erakunde terroristako presoen alde Etxarri-Aranatzen egindako ekitaldia. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina. (6. or.).

—Eguesibarko Udalarri buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina. (18. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru lege proposamena, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarria indargabetzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarria indargabetzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarria indargabetzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru lege proposamena, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarria indargabetzen duena.

Zioak

Laugarren xedapen gehigarriaren interpretazioa. 9/2010 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarriak hau esaten du hitzez hitz: "Nafarroako

Foru Komunitateko Administrazioaren finantzaketa jasotzen duten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek uko egiten baldin badiote haien ikastetxeetan foru lege honetako 17.2 artikuluan ezarritako programa azaltzeari, galdu ahalko dituzte diru-laguntzak."

Halaber, lege horren beraren 17.2. artikulua honakoa ezartzen du: "2. Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuak, urtean behin, hezkuntza programa bat zabalduko du Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak jasotzen dituzten Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetan, egoki irizitako iraupena izanen duena, terrorismoaren aurkako bizikidetasun baketsu eta demokratikoaren balioak jaso eta islatuko dituena eta gazteak kontzientziatuko dituena hitzak ideia demokratikoak aldezteko bitarteko eta modua den aldetik duen balioari buruz. Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuei ere emanen zaie aukera hori".

9/2010 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarriaren testua aztertzeke, abiapuntu gisa hartu behar da egiaztapen bat; hain zuzen, aipatu xedapen horren testuan sinonimo gisa (edo, gutxienez, termino analogo gisa) erabiltzen direla "finantzaketa" eta "diru-laguntzak" terminoak. Hau da, egiaztapen horren arrazoiak bat baino gehiago dira:

Zabalkunde handia duen interpretazioa da, gizarteak interpretatu duena. Testuaren berezko exegeziak adierazten du "obeditzen ez duten ikastetxeak" itunik gabe geratuko direla; hau da, ituna ukatu egingen zaiela.

Aipatu laugarren xedapen gehigarrian ez dira inon ere aipatzen ikastetxe pribatuak; aldiz, ikastetxe horiek espresuki aipatzen dira legearen 17.2 artikuluan. Ikastetxe pribatuak dira diru-laguntzen berezko hartzaile, "diru-laguntza" terminoaren zentzu juridiko hertsia kontuan hartzen badugu, eta, horrenbestez, xedapen iragankorrean ez badi-ra aipatzen da termino hori itunaren ekarpenen zentzuarekin erabiltzen delako.

Zehapen-prozedura inplizitu eta zaharkituaren desegokitasun juridikoa.

Nafarroako Kontseiluaren 2013ko apirilaren 9ko txosten juridikoak, toki ogasunek Nafarroako tribu-tuetan parte hartzeko funtsaren banaketari buruzkoa bazen ere, gai honekin zerikusia duten HIRU kontu arras garbi utzi zituen:

1.- Diru-laguntzaren kontzeptua bere zentzu juridiko hertsian ulertu behar dela, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 2.2 artikuluan ezarritako moduan. Administrazioak irakaskuntza itunduari eginiko ekarpenak ez dira diru-laguntzak, betebeharra eta eskubidea baizik. Hala ere, 9/2010 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarriaren egungo testuan, interpretazio ohiko eta orokorra kontrakoa da.

2.- Nafarroako aurrekontu orokorretatik sektore publikoa osatzen duten entitateen jarduera finantzatzeko egiten diren ekarpenak ez direla diru-laguntzak; aldiz, alde batetik betebeharra dira eta, bestetik, eskubidea. Irakaskuntza arautua zeregin publikoa da, eta zeregin hori gauzatzen da (ekimen pribatuak egiten ez duen neurrian), irakaskuntza publikoaren egituraren bidez edo irakaskuntza itunduaren finantzaketaren bidez.

3.- Zehapenak ezartzeko administrazio prozedura orok baldintza hauek, gutxienez, bete behar

dituela: A) Segurtasun juridikoaren printzipioa, arauketa espresu eta esplizituaren bidez. B) Tipikotasuna zehaztea; hau da, arau-hauste gisa definitzen den egintzaren tipoaren osagai guztiak zehaztea. Hau da, arau-hauste definitu behar da. C) Errugabetasun presuntzioa eta defentsaren bermeak; hau da, ustezko arau-hausleak dagozki-on edo interesatu ahal zaizkion defentsa-jarduketak egin ahal izatea. D) Irmoak ez diren zehapenen exekutaezintasuna. Aurreikusitako moduan exekutaturiko zehapen batek kalte itzulezinak eragin litzake. E) Arau-haustearen eta haren zigor edo ondorioen arteko proportzionaltasuna. Kasu honetan, proportzio hori ez dago neurtua.

Indargabetu nahi den xedapen gehigarriaren aplikaezintasunaren frogua gisa, egiazki esan daiteke ez dela inoiz aplikatu, ezta aplikatzeko eskatu ere, eta, halaber, praktikan, ezinezkoa da horri buruzko administrazio-espeditente bat egitea beharrezkoak diren berme juridikoekin. Horrek guztiak erakusten du xedapen hori ez dagoela zuzenbide-eragokitua.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarria indargabetzea eta ondorioz gabe uztea.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita Nafarroako Parlamentuarekin batera pertsonatu dadin
4285/2013 konstituziokontrakotasuneko errekursoaren defentsan.**

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko abuztuaren 5ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak onetsi du:

1.- Bere desadostasuna adieraztea Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiarekin, zeinaren bidez nahikotzat eta egokitzat jotzen baita Nafarroako Parlamentua bakarrik aurkeztea 4285/2013 konstituziokontrakotasun errekursoari buruzko auziaren defentsan, uste dugulako Nafarroako Gobernuaren ardura dela Parlamentuak onetsitako legeak betetzen direla zaintzea. Errekurtso hori

Espainiako Gobernuko lehendakariak sustatu zuen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 136. d) artikulua-
ren testua aldatzen duen martxoaren 12ko 10/2013 Foru Legearen artikulua bakarreko Zazpi atalaren aurka.

2.- Nafarroako Gobernua premia-tzea Nafarroako Parlamentuarekin batera pertsonatu dadin errekurtsorik horren defentsan”

Iruñean, 2013ko abuztuaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak
elkartasuna adierazten baitie "Navarra Directo" telebista-programako
langileei eta programa horrek egindako zabalkunde lana aitortzen
baitu.**

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko abuztuaren 5ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die "Navarra Directo" telebista-programako langileei eta programa horrek egindako zabalkunde lana aitortzen du.

2.- Nafarroako Parlamentuak uste du programa hori desagertzeak kalte larria egiten diola pertsona guztien informazio eskubideari. Nafarroako entzuleek toki informazioko eta denbora-pasako eguneroko programa bat galtzen dute, eta, horren-

bestez, informazio askotariko eta egiaztatua eskuratzeko hedabide bat gutxiago dute eskura.

3.- Nafarroako Parlamentuak berresten du jarduketa bide berriak jorratu beharra dagoela Nafarroan LDT bidez jaso ahal izan dadin ETB, eta Nafarroako Gobernuak arlo horretan izan duen jarrera itxia gaitzesten du.

4.- Adierazpen instituzional honen testua Eusko Jaurlaritzari eta EITBri helaraziko zaie”

Iruñean, 2013ko abuztuaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baitu ETA erakunde terroristako presoen alde Etxarri-Aranatzen egindako ekitaldia.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko abuztuaren 5ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Iragan larunbatean Etxarri-Aranazko jaiei hasiera emateko txupinazoan izandako gertakizunak ikusita –zenbait kaputxadunek ETako terroristen argazkiekiko pankarta handi bat atera zuten udaletxe aurrean; besteak beste, Fernando Buesa eta haren bizkarzain Jorge Díez hiltzeagatik kondenatutakoarena–, Nafarroako Parlamentuak ondoko adierazpen instituzionala onetsi du:

1.- Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du ETA erakunde terroristako presoen alde Etxarri-Aranatzen egindako ekitaldia.

2.- Nafarroako Parlamentuak bere babesa, elkartasuna eta oroimena erakusten die terroristen biktimei”

Iruñean, 2013ko abuztuaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak Nafarroako toki sektore publikoari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (6. or.).
- II. Helburuak, norainokoa eta mugak (7. or.).
- III. Toki sektore publikoaren antolaketa-egitura eta araudia (7. or.).
 - III.1. Antolaketa-egitura (7. or.).
 - III.2. Araudia (10. or.).
- IV. Toki entitateen fiskalizazio-jardueren laburpen-txostena (11. or.).
- V. Toki sektore publikoaren finantza-egoera (13. or.).
- VI. Kontratazio administratiboa (16. or.).
- VII. Gomendioak (16. or.).
 1. gehigarria. Nafarroako toki sektore publikoaren egoerari eta Nafarroako udal bakoitzaren

finantza-egoerari buruzko txostena, 2010. urtea.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

Nafarroako toki sektore publikoa, 2010

I. SARRERA

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko txostena egin da Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea betez. Izan ere, lege horretako 350.2 artikulua ezartzen duenez, Kontuen Ganberak urtero igorriko die txosten-laburpen bat Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari, Nafarroako toki entitateen arloan Kontuen Ganberak egindako fiskalizazio- eta kontrol-jardueri buruzkoa.

Lan hori 2012ko azaroan egin zuen kontu-ikuskaritzako teknikari batek eta kontu-ikuskatzaile batek, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Txostena ezin izan da lehenago egin, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak toki entitateek ekitaldi bakoitzeko kontu orokorra onesteko eta Gobernuari igortzeko ezarritako epeak eta informazio horren tratamenduaren konplexutasuna direla-eta.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako toki entitateetako, Toki Administrazioiko Departamentuko eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazio-ko langileei, lan hau egiteko emandako laguntza-rengatik.

II. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Lanaren helburuak hauexek dira:

a) Nafarroako toki entitateen esparruan Ganbera honek egindako fiskalizazio- eta kontrol-jardueren 2010eko ekitaldiko txosten-laburpena aurkeztea.

b) Nafarroako toki entitateen 2010eko finantza-egoeraren eta antolamenduaren ikuspegi bat ematea Parlamentuari, administrazio publikoei eta Nafarroako gizarteari.

c) Toki entitateen kudeaketa hobetzeko aholkuak proposatzea Nafarroako Parlamentuari, Gobernuari eta toki entitateei.

Nafarroako toki entitateen 2010eko ekitaldiko kontu orokorra da lanaren norainokoa. Ondokoek osatzen dute kontua:

- Udalen kontuak nahiz haren erakunde autonomoenak.
- Kontzejuena eta mankomunitateena.
- Merkataritzako elkarteak, horien kapitala oso-osorik toki entitateena bada.

Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak gaiari buruz 2012ko irailean egindako eta ganbera honi igorritako txostenean oinarritzen dira toki sektore publikoaren finantza-egoerari buruzko ondorioak.

Lanaren norainokoari dagokionez, muga bat izan zen ondoko toki entitateei buruzko informazio ekonomiko-finantzariorik eta aurrekontuei dagokionik ez edukitzea, Toki Administrazioari buruzko txostena egiteko unean hurrengo entitateak Nafarroako Gobernuari 2010eko kontu orokorra bidali gabe baitzeuden:

- Udalak: Fitero (2.332 biztanle), Xabier (106 biztanle), Ollaran (366 biztanle), Petilla Aragoi (23 biztanle) eta Esa (253 biztanle).

Udal horiek, daudenen ehuneko 1,84 baizik egiten ez dutenek eta 2010eko urtarrilaren 1ean guztizko populazioaren ehuneko 0,5 egiten dutenek Toki Administrazioari buruzko txostena egiteko garaian igorri zituzten beren kontuak.

- Kontzejuak: Amillao, Aramendia, Artozki, Arostegi, Beruete, Ihaben, Biurrun, Olkatz, Gazolatx, Gerendiain, Imarkoain, Iharnotz, Zulueta, Antxoritz, Arre, Aizpun, Goñi, Eraso, Zarrantz, Ardanatz, Markalain, Otsakar, Alli, Etxarri, Zufia, Olaitz, Etxague, Mendibil, Oloritz, Soltxaga, Anotz,

Beasoain-Egillor, Senosiain, Biotzari, Domeñu, Muru Artederreta, Gorrontz-Olano, Gerendiain, Ballariain eta Elkarte.

40 kontzeju horiek 3.575 biztanle dauzkate, eta dauden kontzejuen ehuneko 11,40 egiten dute. Gaur den egunean, 2012ko abenduan, 13 kontzeju beren kontuak igorriak zizkioten Foru Komunitateko Administrazioari.

- Batasunak: Aezkoako Batzarre Nagusia.
- Mankomunitateak: Malerrekako Zerbitzu Orokorraren Mankomunitatea, Araxes Garaiko Mankomunitatea, Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea, Erdialdeko Erriberako Kirol Mankomunitatea, Basaburua-Imotz Zerbitzu Administrazioen Mankomunitatea, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako Zerbitzu Administrazioen Mankomunitatea. Mankomunitate horiek guztiek beren jarduerari eutsi zioten 2010eko ekitaldian.

Batasun eta mankomunitate horiek dauden guztien ehuneko 8 egiten dute. Basaburua-Imotz Zerbitzu Administrazioen Mankomunitatea da bere kontuak geroan Foru Administrazioari igorri zizkion bakarra.

III. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAKETA-EGITURA ETA ARAUDIA

III.1. ANTOLAKETA-EGITURA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean ezarritakoarekin bat antolatzen da toki sektore publikoa.

Udalak dira lurralde-antolamenduaren oinarriko toki entitateak. Toki entitatearen mailakoak dira, halaber:

- Kontzejuak.
- Errege Bardeako Komunitatea, Aezkoako Elkarte, Erronkari Ibarreko Mankomunitatea, Zaraitzuko Unibertsitatea eta herri-ondasunen titularrak diren edo administratzen dituzten izaera tradizionalako korporazioak.
- Mankomunitateak.
- Udal-batasunak.
- Administrazio-barrutiak.

Honakoa da toki entitateen kopurua, 2010eko abenduaren 31n, aurreko urteetako toki entitateen kopuruarekin alderatuta:

Toki entitateak	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Udalak (1)	272	272	272	272	272	272
Kontzejuak	355	353	353	352	350	351
Mankomunitateak.	64	66	67	66	65	66(2)
Udal-batasunak	10	12	14	18	17	18
Guztira	701	703	706	708	704	707

(1) 60 udal konposatuak dira

(2) 5 mankomunitatek ez dute jarduerarik


2010ean, Saldiseko Kontzejua, Andiako Mankomunitatea eta Basaburuko Zerbitzu Administrazioen Batasuna sortu ziren.

2005etik 2010era doan aldian, honakoak dira toki entitateen menpeko organismoak (erakunde autonomoak eta enpresa publikoak), tokiko fundazio publikoak eta partzuergoak:

Entitatea	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Erakunde autonomoak	79	73	72	73	67	67
Enpresa publikoak	25	29	29	38	41	42
Fundazio publikoak	11	11	13	13	9	9
Partzuergoak	10	10	11	16	16	18
Guztira	125	123	125	140	133	136

2010ean, Altsasun, Atabo Altsasu SL sozietate publikoa sortu zen, bai eta Hilarión Eslava Musika Eskolako Partzuergoa –Burlatako eta Atarrabiako udalek osatua– eta Xabierren Lurrak Turismo Partzuergoa ere.

Hona, grafikoki, Nafarroako toki sektore publikoaren egitura 2010eko abenduaren 31n:



Nafarroako 272 udalerrien biztanle-kopurua, errolda ofizialeko datuen arabera, 636.924koa zen, 2010eko urtarrilaren 1ean. Hona haien banaketa:

Biztanle-tartea	Zenbat kopurua	udalerriak guztizkoaren gainean (%)	Biztanleria	Biztanleria, guztizkoaren gainean (%)
<100	35	12,87	2.165	0,34
100-199	57	20,96	8.121	1,28
200-499	58	21,32	18.572	2,92
500-999	37	13,60	27.068	4,25
1.000-1.999	26	9,56	36.435	5,72
2.000-2.999	21	7,72	53.569	8,41
3.000-4.999	17	6,25	64.916	10,19
5.000-9.999	11	4,04	78.767	12,36
10.000-24.999	8	2,94	114.555	17,98
25.000-50.000	1	0,37	35.268	5,54
50.000 baino gehiago	1	0,37	197.488	31,01
Guztira	272	100%	636.924	% 100

Nafarroako udalen ehuneko 68,75ek (187 udal) 1.000 biztanle baino gutxiago dituzte. Aipatzekoa da, halaber, Nafarroako biztanleriaren ehuneko 31,01 Iruñeari dagokiola eta talde horren ehuneko 55 Iruñerrian bizi dela.

Ganbera honek bere txostenetan behin eta berriro adierazi bezala, biztanle-kopuru txikiak dituztenez giza baliabide eta finantza-baliabide mugatuak dituzte eta ez dute administrazio-egitura egokia eta nahikoa beren eskumenak kudeatzeko, eta horrek zaildu egiten du zerbitzuak merke, eraginkortasunez eta kalitatez ematea.

Nafarroako Toki Administrazioaren eredu gaurkotu gabe egotearen arazoak bere horretan dirau. Toki Administrazioak herritarren egungo eskariak eta kudeaketa publiko arrazionala uztartu behar ditu.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko VII. titulua aldatzen duen martxoaren 17ko 4/2011 Foru Legean ezarri zen Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorriko ziola Parlamentuari 2012ko irailaren 30a baino lehen, Nafarroako toki entitateen antolamendua eta tokiko mapa arautzeko.

2012ko urriaren 24an onetsi zuen Nafarroako Gobernuak Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeko Foru Lege proiektua, honako helburu hauekin: udal zerbitzuen kudeaketa ekonomikoa eta prestazioa arrazionalizatzea eta hobetzea; ahal den berdintasun handiena lortzea herritarrek zerbitzuak jasotzeko dagokionez eta Nafarroako

Toki Administrazioaren mapa administratibo eta funtzionala lurraldearen ikuspuntutik antolatzea.

Honakoak dira helburu horiek lortzeko proposatutako neurrietako batzuk:

- Udalak beren borondatez batu daitezten eta zerbitzuak emateko udalen arteko egituretan sar daitezten sustatzea.

- Zerbitzu administrazioen batasunak sortzea, idazkaritza eta kontu-hartzailatza eginkizunak bete ditzaten.

- Interes orokorreko sei mankomunitate sortzea, egun daudenak biltzeko.

- Kontzeju kopuruari eustea, berezitasun hauekin:

- Kontzejuak azkenduko dira, beste arrazoi batzuen artean, 1.000 biztanletik gorako kontzeju bateko populazioa kide den udal osokoa baino handiagoa denean, hauteskunde-prozesuetan hautagai-zerrendarik aurkezten ez denean, bete-behar administrazioak betetzen ez dituztenean eta 16 biztanle baino gutxiago dituztenean.

- Ezin izanen da kontzeju berririk sortu, haien eskumenak murriztuko dira eta ekonomiaren, aurrekontuaren eta finantzaren alorrean kide diren Udalaren kontu-hartzailearen aholkularitza jasoko dute.

- Dauden 11 batasun tradizionalak murriztea toki-entitatearen izaera gorde duten lau hauetara: Nafarroako Errege Bardeako Komunitatea, Aezkoa

Ibarreko Batzarra, Erronkari Ibarreko Batzarra eta Zaraitzu Ibarreko Batzarra.

Toki Administrazioaren eredu berri hau dela eta, aipatutako foru lege proiektuan azaltzen den bezala, gaur egungo finantzaketa-eredua aztertu behar da eta Toki Ogasunek Nafarroako zergetan duten Parte-hartze Funtza berrikusi behar da.

III.2. ARAUDIA

Ondoko lege- eta erregelamendu-xedapenak dira, funtsean, Nafarroako toki entitateek 2010ean bete behar dituztenak:

- Toki administrazioaren eta -araubidearen arloan eta ekonomia-, aurrekontu- nahiz kontabilitate-araubidearenean aplikatzekoak dira:

a) Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

b) Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

c) Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.

d) 270/1998 Foru Dekretua, 271/1998 Foru Dekretua, 272/1998 Foru Dekretua eta 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoak denak, aurrekontuei eta gastu publikoari, aurrekontuen egiturari, Nafarroako Toki Administrazioarentzat Kontularitza Orokorreko Instrukzioari eta Kontularitza Bakunari dagokiena, hurrenez hurren.

e) Kontabilitate publikoaren plan orokorra, toki-administrazioari egokitua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 1990eko uztailaren 17ko aginduz onetsitakoa. (272/1998 FD 425 Araua, Kontularitza Instrukzio orokorra)

f) 2010eko aurrekontuaren betetze-oinarriak.

g) Zergak eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantzak eta akordioak.

- Kontratazio administratiboaren alorrean, ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoei buruzkoa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legean zehaztutako berezitasunekin.

- Langileen arloan, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.

- Hirigintzaren arloan, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea.

- Diru-laguntzen arloan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztai-

laren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako erregelamendua.

Horrez gainera, toki sektore publikoari aplikatu beharreko ondoko legeak onetsi ziren 2010ean zehar:

- 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Planaren Ohiz Kanpoko Planari buruzko 13/2008 Foru Legea.

- 2/2010 Foru Legea, otsailaren 23koa, Euskari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzen duena.

- 3/2010 Foru Legea, otsailaren 23koa, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen duena, bizitzeko beharkizuna dagokionean.

- 15/2010 Foru Legea, urriaren 25ekoa, Nafarroako Polizieiei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena.

- Apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legea, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzkoa, zeinak indarrak gabe uzten baitu Oztopo Fisikoei eta Zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legean jasotako erregulazioa.

- 6/2010 Foru Legea, apirilaren 6koa, zenbait foru lege aldatzen dituena, eta apirilaren 6ko 7/2010 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena, Barne Merkatuko Zerbitzuei buruzko 2006/123/CE Zuzentarauari egokitzeko.

- Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea.

- 8/2010 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 20koa, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak ezartzen dituena, eta 12/2010 Foru Legea, ekainaren 11koa, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.

- 15/2010 Legea, uztailaren 5ekoa, merkataritza eragiketetan berankortasuna eragozteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duena.

- 39/2010 Legea, abenduaren 22koa, 2011rako Estatuko Aurrekontu Orokorreiei buruzkoa, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak ezartzen dituen maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Dekretu Legea aldatzen duena.

IV. TOKI ENTITATEEN FISKALIZAZIO-JARDUEREN LABURPEN-TXOSTENA

Nafarroako Kontuen Ganberak ondoko 21 udalerrien 2010eko kontu orokorraren finantzen eta legezkotasunaren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin zuen:

Udala	Txostenaren data	Biztanleria, 2010-1-1eko zentsua	Gastuak	Diru- sarrerak	Menpeko entitateak			
					EEAA	Enpresa	Fundaz.	Enpresa- ente publi- koa
Altsasu	03/04/2012	7.698	7.702.354	7.707.149	2	1		
Antsoain	02/12/2011	10.603	9.978.369	9.205.860	1			
Barañain	15/11/2011	21.705	17.008.456	18.078.792	2	1	1	
Berrio- beiti	06/03/2012	4.852	8.598.358	10.475.033				
Berriozar	12/01/2012	9.034	9.233.885	8.953.915				
Burlata	13/12/2011	18.389	17.804.155	19.143.058	2	3		
Castejón	07/10/2011	4.306	7.989.317	8.014.624	2			
Lizarra	17/02/2012	14.207	16.388.118	17.535.498	1	1		
Etxeberri	02/04/2012	595	734.354	644.532	1			
Faltzes	14/03/2012	2.650	3.882.962	3.874.942				
Lekunbe- rri	19/04/2012	1.432	4.075.717	4.947.834	1			
Erriberri	02/05/2012	3.722	5.495.622	7.491.006				
Iruñea	09/03/2012	197.488	270.366.091	236.615.913	2	5	2	
Gares	26/11/2012	2.867	2.972.427	2.801.828	2	1		
Ribafo- rada	26/04/2012	3.617	3.824.902	3.759.157	2			
Tafalla	16/12/2011	11.413	17.359.311	17.970.005	3	1		
Tutera	21/12/2011	35.268	45.815.386	57.404.972	1		2	1
Eguesi- bar	17/11/2011	14.354	10.343.005	9.653.865		3		
Viana	15/03/2012	3.937	5.860.491	5.903.476				
Atarrabia	16/01/2012	10.568	10.334.746	10.503.319				
Zizur Nagusia	11/01/2012	13.316	19.924.421	13.089.829	3			
Fiskalizatutako udalerriak, guztira		392.021	495.692.447	473.774.607	25	16	5	1

Fiskalizatutako 21 udalerrien artean 392.021 biztanle dituzte; alegia, Nafarroak 2010eko urtarrilaren 1ean zituen 636.924 biztanleen ehuneko 61,5. Horien diru-sarrerak Nafarroako toki sektore publiko guztiaren diru-sarreraren ehuneko 49,7 hartzen dute, eta gastuek ehuneko 51,8.

21 udalerrri horien artean 25 erakunde autonomo, 16 enpresa publiko, bost fundazio eta enpresa-ente publiko bat dituzte.

Fiskalizazioen helburua honako gai hauei buruzko iritzia ematea izan zen:

a) Toki Entitatearen 2010eko ekitaldiko kontu orokorrak, alderdi nagusiei zegokionez, 2010eko abenduaren 31ko ondareari, ekonomia- eta finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta ekonomia-emaitzari buruzko irudi zehatza ematen zuen, aplikatzekoak zaizkien kontabilitate-arauen eta -printzipioekin bat.

b) 2010eko ekitaldian legezkotasuna bete ote zen.

c) Entitatearen finantza-egoera 2010eko abenduaren 31n.

Fiskalizazioaren emaitzak dagokion txostenean jaso ziren, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitaratu.

Fiskalizatutako 21 toki entitateetatik, lau udalerritan 2010eko kontu orokorrari buruzko iritzia aldekoa izan zen; 15 udalerritan, berriz, aldeko iritzia eman zen baina salbuespenen batekin; eta, azkenik, bi udalerritan iritzia negatiboa izan zen.

Hona salbuespen nagusiak:

- Eguneratu gabeko inbentarioa (14 entitate).
- Ez daude kuantifikatuta eta erregistratuta funtzionarioen pentsio-ereduetatik ondorioztatutako betebeharrak aktuarialak (berriazko aurreikuspen-sistemak dituzten 3 entitateak).
- Kontabilitate akats ugari eta adierazgarriak, kontu orokorraren kontabilitateko hainbat egoerorritan eragina dutenak (3 entitate).
- Sozietate instrumental batek eginiko udal inbertsioak (entitate bat).
- Kontabilizatu gabeko diru-sarrerak egotea (entitate bat).
- Finantza-egoerak eragindako ziurgabetasuna (entitate bat).
- Ondare-erantzukizuneko erreklamazio baten amaierako emaitzak eragindako ziurgabetasuna (entitate bat).

Hona Ganbera honek 2010eko fiskalizazio-txostenetan emandako aholku nagusiak:

Aurrekontu orokorra eta kontu orokorra

- Aurrekontu orokorra kasuan kasuko ekitaldia hasi baino lehen onestea (16 entitate).
- Kreditu-aldaketak izapidetzea eta onestea aurrekontuan behar adina diru ezarrita ez duten gastuak egin baino lehen.
- Kontu orokorrean aurkeztea Udalaren eta beraren erakunde autonomoen egoera-orri bateratua (6 entitate).
- Kontu orokorra hurrengo ekitaldiaren irailak 1 baino lehen onartzea (5 entitate).

Ibilgetua eta inbentarioa

- Ondasun eta eskubideen udal-inbentarioa eguneratzea eta onestea. Kontabilizaturako ibilgetuarekin konektatzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatzea eta aplikatzea (14 entitate).
- Udal-ondasunen eskuratzeko- eta erregistratze-prozesua burutzea (7 entitate).
- Egoera-balantzearen ibilgetuko saldoak berrikusi eta erregularizatzea (4 entitate).

Langileak

- Enplegu-eskaintza publikoan sartzea aurrekontuetan dirua ezarrita daukaten lanpostu huts guztiak (10 entitate).
- Plantilla Udalaren langileria-premiarekin bat datorren ala ez aztertzea (9 entitate).
- Plantilla organikoa hurrengo ekitaldiaren aurretik onartzea (5 entitate).
- Merezimendu eta gaitasun printzipioak aplikatzea aldi baterako langileak hautatzeko prozesuetan (4 entitate).

Kontratazio administratiboa

- Kontratazio prozedura egokia aplikatzea, kontratuaren izaeraren eta zenbatekoaren arabera (9 entitate).
- Kontratazio araudia aplikatzea inbertsioak adjudikatzeko eta betetzeko prozedurari dagozkien alderdi guztietan (5 entitate).
- Kontratuen indarraldia kontrolatzea eta lizitazio prozeduraren hasiera behar den denborarekin planifikatzea (4 entitate).
- Inbertsio guztien bideragarritasun plana egitea (4 entitate).

Emandako diru-laguntzak

- Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onestea (8 entitate).

Hirigintza

- Lurzoruaren Udal Ondarea eratzea eta kudeatzea Udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, eta Udalaren Lurzoru Ondarearen Erregistroa sortzea (16 entitate).

- Planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen arabera egokitzea (11 entitate).

- Beste balorazio-ponentzia bat onestea (8 entitate).

- Planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen arabera egokitzea (5 entitate).

Diru-sarrerak

- Tasa eta prezio publikoekin ordaintzen diren kostuei buruzko azterlanak egitea (4 entitate).

Sozietate-erakunde autonomoak

- Udalak bere erakunde autonomoen eta/edo merkataritza-sozietateen ekintzen gainean egin behar duen kontrola eta babesa modu egokian bermatuko duten prozedurak diseinatzea (4 entitate).

Aurreko txostenez gainera, toki entitateei buruzko bi txosten osagarri egin ziren 2010. urteari dagokionez, nola diren:

Diru-sarrerak

Kapitulua	Euroak, milioitan			
	Diru-sarrerak 2010	Diru-sarrera guztien gainera ehunekoa	2009ko diru-sarrerak	Diru-sarreraren aldaketa 2010/09 urteetan
1 Zuzeneko zergak	167,99	17,6	164,80	% 2
2 Zeharkako zergak	28,47	3	32,48	% -12
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	142,32	14,9	143,23	% -1
4 Transferentzia arruntak	299,80	31,5	292,75	% 2
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	41,89	4,4	42,81	% -2
Diru-sarrera arruntak	680,47	71,4	676,07	1%
6 Inbertsioen besterentzea	23,50	2,5	67,60	% -65
7 Kapital-transferentziak	193,93	20,3	271,01	% -28
Kapitaleko diru-sarrerak	217,43	22,8	338,61	-36%
8 Finantza-aktiboaren aldaketa	8,03	0,8	17,23	% -53
9 Finantza-pasiboaren aldaketa	47,31	5	77,09	% -39
Finantza-eragiketako diru-sarrerak	55,34	5,8	94,32	% -41
Diru-sarrerak guztira	953,24		1.109,00	% -14

a) Nafarroako 500 biztanletik beherako udalei buruzko txostena. Txosten horretan, aipatutako populazio-tartean sartzen diren 150 udalerrien arazo nagusietako batzuk erakutsi genituen. Besteak beste, giza baliabide eta baliabide material eta finantzarioen eskasiak eragindako arazoak dira, zerbitzuen ezarpena zailtzen dutenak; edo teknologia berriei lotutako arazoak; edo inbertsioen finantziarioekin lotutakoak.

b) Nafarroako udalerrri populatuenean bilakaera ekonomiko-finantzarioari buruzko txostena (2003tik 2010era bitarteko ekitaldiak). Txosten hori 9.000 biztanle baino gehiago dituzten 11 udalerriri buruzkoa da. Txosten horretan, udalerrien ranking bat aurkeztu zen, 2010eko ekitaldian zeukaten aurrekontu- eta finantza-egoeraren arabera. 17 adierazlek osatutako adierazle sintetiko batekin prestatu zen ranking hori.

V. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-EGOERA

Toki sektore publikoaren 2010. urteko finantza-egoeraren azterketa Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren txostenean oinarrituta dago. Udalerrien eta haien erakunde autonomoen informazio bateratua aurkezten da, bai 2010ekoa, bai aurreko ekitaldietakoa. Halaber, kontzejuen, mankomunitateen eta batasun tradizionalen informazioa ematen da.

2010eko ekitaldian, toki sektore publiko osoaren diru-sarrerak 953,24 eurokoak izan ziren; horietatik, ehuneko 51,8 transferentzia arruntetatik eta kapital-transferentzietatik heldu zen; ehuneko 20,6, zergetatik; ehuneko 14,9, tasa, prezio publiko eta bestelako diru-sarreretatik; ehuneko 5,8, finantza-eragiketetatik; ehuneko 4,4, ondare bidezko diru-sarreretatik; eta gainontzekoa, ehuneko 2,5, inbertsioen besterentzetik.

Toki sektoreak transferentzien mendekotasun handia duela ikusten da, diru-sarreraren ia ehuneko

52 osatzen baitute. 2010ean, 2009an bezala, E Planeko kapital-transferentzien bidezko aparteko diru-sarrerak aitortu ziren,

Diru-sarreraren ehuneko 86 udalei dagokie; ehuneko 12 mankomunitateei eta ehuneko bi kontzejuei.

2010eko diru-sarrerak ehuneko 14 txikiagoak izan ziren 2009koak baino, batez ere zeharkako zergek ehuneko 12 behera egin zutelako, kapitaleko diru-sarrerak ehuneko 36 behera egin zutelako eta finantza-pasiboek ehuneko 39 behera egin zutelako.

Gastuak		Euroak,			
milioitan					
Kapitulua	Gastuak 2010	Gastu guztien gaineko ehunekoa	2009ko gastuak	Gastuen aldaketa 2010/09 urteetan	
1 Langile-gastuak	259,72	27	262,42	% -1	
2 Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	260,98	27	260,95	0	
3 Finantza-gastuak	8,37	1	11,77	% -29	
4 Transferentzia arruntak	78,23	8	71,59	% 9	
Gastu arruntak		607,3	63,5	606,73	0
6 Inbertsio errealak	298,03	31	430,22	% -31	
7 Kapital-transferentziak	14,31	1,5	15,32	% -7	
Kapital-gastuak		312,34	32,5	445,54	% -30
8 Finantza-aktiboaren aldaketa	8,33	1	13,55	% -39	
9 Finantza-pasiboaren aldaketa	28,59	3	25,02	% 14	
Finantza-eragiketen gastuak		36,92	4	38,57	% -4
Gastuak, guztira		956,56	100	1.090,84	% -12

Toki Sektore Publikoaren 2010eko gastuek 956,56 milioi euro egin zuten. Ehuneko 31 inbertsioei dagozkio; ehuneko 27 langile-gastuei; ehuneko 27 ondasun arruntak eta zerbitzuen erosketari; ehuneko 9,5 egindako transferentziei, eta gainerakoak finantza-eragiketen ondoriozko gastuei. Hau da, gastuen ehuneko 63,5 funtzionamendukoak dira; ehuneko 32,5 kapitaleko gastuak dira, eta gainerakoak finantza-eragiketeki dagozkio.

Gastu horien sailkapen funtzionalari erreparatu gero, ehuneko 22 etxebizitza eta hirigintzaren sailari dagozkio, ehuneko 15 kulturari eta kirolari, ehuneko 12,5 gizarte-segurtasunari eta -babesari, ehuneko 11 mankomunitatearen ongizateari, ehuneko hamar entitatearen administrazio orokorrari, ehuneko zortzi hezkuntzari eta gainerakoa beste kontzeptu batzuei, nola diren segurtasuna eta babes zibila, finantza-zama eta administrazioa edo gizarte-sustapena.

Gastuen ehuneko 87 udalei dagokie, ehuneko 11 mankomunitateei eta ehuneko bi kontzejuei. Ehuneko horiek diru-sarreraren kasuan lortutakoen antzekoak dira.

2010ean aitortutako gastuek ehuneko 12 egin zuten behera 2009koekin aldaratuta, batez ere kapitaleko gastuek ehuneko 30 egin zutelako behera eta kapitaleko diru-sarrerak, berriz, ehuneko 36 jaitsi zirelako. Ehuneko 100 finantzatutako E Planeko inbertsioek 67 milioi euro egin zuten.

Defizit publikoa murrizteko neurriak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituen 12/2010 Foru Legearen aplikazioaren ondorioz toki entitateetako langileen lansarietan egindako gutxitzeak langile-gastuak txikiagoak izatea eragin zuen. Izan ere, gastu horiek 2009an baino ehuneko bat txikiagoak izan ziren.

Laburbilduz, 2010. urtean toki sektore publikoak aurrekontu-kitapen positiboa erakusten du, 37,91

milioi euroko aurrekontu-superabit doituarekin, nahiz eta aurrekontuaren emaitza ez finantzarioak 21,42 milioi euroko defizita duen.

Ondoren, toki entitateen finantza-egoeraren hainbat adierazleren bilakaera erakusten da, 2007tik 2010era:

Adierazleak	2007	2008	2009	2010
Aurrezki gordina	104,27	91,39	81,11	81,54
Finantza-zama	31,61	35,31	36,78	36,96
Aurrezki garbia	72,66	56,08	44,33	44,58
Zorpetze-maila	% 4,98	% 5,31	% 5,44	% 5,43
Zorpetzearen muga	% 16,42	% 13,73	% 12,00	% 11,98
Zorpetze-ahalmena	% 11,44	% 8,42	% 6,56	% 6,55
Zorra, guztira	280,56	336,40	382,66	386,40
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	58,8	76,98	100,67	88,09

Toki sektore publikoak funtzionamendu-gastuei eta finantza-zamari erantzuteko adina baliabide arrunt sortu zituen 2010ean. Era horretara, aurrezki garbia, baliabide arrunten soberakina funtzionamendu gastuak finantzatu ondoren (langileak, ondasun arruntak eta zerbitzu eta transferentzia arruntak), eta zorraren finantza-zama (interesak eta amortizazioa) 44,58 milioi eurora iritsi ziren. Bai aurrezki gordina, bai aurrezki garbia positiboak dira, eta 2009an lortutakoak baina handixeagoak.

Zorpetze maila diru-sarrerara arrunten ehuneko 5,43koa izan zen, aurreko urteetakoaren antzekoa, eta zorpetzeko gaitasuna ehuneko 6,55koa izan zen, aurreko ekitaldikoaren ia berdina.

Zorra 386,40 milioi eurora iritsi zen, diru-sarrerara arrunten ehuneko 57, hau da, ehuneko 38 igo zen 2007. urtekoaren aldean. Zorraren ehuneko 88 udalei eta haien erakunde autonomoei dagokie, ehuneko 9 mankomunitateei eta udal-batasunei, eta gainerakoa kontzejuei. Batez besteko interes-tipoa ehuneko 3,06koa izan zen, eta ordaintzeko dagoen mugaeguna, batez beste, 15,41 urtekoa.

Gastu arruntetarako diruzaintzako gerakina 88,09 milioi eurokoa izan zen; horrek adierazten

du hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko likidezia sortu zuela, nahiz eta ehuneko 14 jaitsi aurreko urtekoaren aldean.

Nabarmenezkoa da 2010ean kapital bidezko diru-sarrerek –eta, horrenbestez, inbertsioek– nabarmen egin dutela behera. Diru-sarrerara arruntek, aldiz, lehengoari eusten diote, izaera bereko gastuek bezala. Baliabide arruntetan, aurrezki bat sortzen da, behin funtzionamendu-gastuak eta finantza-zama –aurreko ekitaldikoaren antzekoa– finantzatuta.

Ikusten da gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak behera egin duela, aurreko ekitaldian sortutako baliabide hori 2010ean gastuak finantzatzeko erabiltzearen ondorioz.

2010ean Nafarroako Toki Sektore Publikoaren finantza-egoera ona bazen ere, krisialdi ekonomikoaren ondorioz –bereziki hirigintzaren alorreko jarduerari eragin ziona eta eragiten diona– toki entitateen diru-sarrerek behera egin dute. Hala eta guztiz ere, baliabide arrunten soberakin bat sortu zen. Inbertsio-jarduerak nabarmen egin zuen behera 2010ean, bai eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak ere.

VI. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA

Atal honetan, toki entitateek eta haien menpeko enteeek adjudikatutako kontratuak erakusten ditugu, Kontratazio Publikorako Batzordeak kudeatutako Kontratuen Erregistroan dagoen informazioaren arabera.

Kontratu-mota	Udalak		Kontzejuak		Mankomunitateak.	
	Zenbat	Adjudikazioaren zenbatekoa	Zenbat	Adjudikazioaren zenbatekoa	Zenbat	Adjudikazioaren zenbatekoa
Obrak	194	63.392.859	6	1.295.726		
Laguntza	82	8.769.631	1	20.000	6	483.028
Zerbitzu-emakidak	17	6.616.162				
Hornidura	28	2.281.933				
Guztira	321	81.060.585	7	1.315.726	6	483.028

Datu horien arabera, toki entitateek, 2010ean, 334 kontratu adjudikatu zituzten guztira. Kontratu horiek 82,86 milioi euroko zenbatekoa egiten dute. Kontratuen ehuneko 60 obrei dagozkie eta adjudikatutako guztizko zenbatekoaren ehuneko 78 egiten dute. Laguntza-kontratuak kontratu guztien ehuneko 27 eta adjudikatutako zenbatekoaren ehuneko 11 egiten dute.

Honakoa da toki entitateen menpeko enteeek 2010ean adjudikatu zituzten kontratu administrati- boei buruz Kontratuen Erregistroan dagoen informazioa:

Kontratu-mota	Erakunde autonomoak		Sozietate publikoak		Fundazioak	
	Zenbat	Adjudikazioaren zenbatekoa	Zenbat	Adjudikazioaren zenbatekoa	Zenbat	Adjudikazioaren zenbatekoa
Laguntza	2	161.853	32	4.641.891	1	97.458

2010ean guztira adjudikatu ziren 35 laguntza-kontratuetatik, 28k 3.913.541 euroko adjudikazio-zenbatekoa egiten dute eta Iruñerriko Mankomunitatearen menpekoa den Iruñerriko Zerbitzuak Sozietateari dagozkio.

VII. GOMENDIOAK

Aurreko guztia kontuan hartuta, Foru Komunitateko Administrazioari eta Parlamentuari honako aholkuak ematen dizkiogu:

- Nafarroako Toki Administrazioa arrazionalizatzeko eta berregituratzeko beharrezkoak diren neurri legegileak eta administratiboak lehentasunez eta premiaz aplikatzea, toki entitateek beren zerbitzuak eraginkortasunez, merke eta kalitatez eman ditzaten eta helburu horretarako giza baliabideak eta baliabide finantzarioak izan ditzaten.

Neurri horiek Nafarroako gizarte osoan eta haren botere publikoetan dute eragina; hori dela

eta, adostasuna lortzen saiatu behar da, betiere herritarren borondatea eta zilegi diren interesak errespetatuz, eta lidergo politiko-instituzionala gauzatuz neurrien inplementatzean.

- Toki entitateen eta horien merkataritza-sozietate publikoen kontularitza-egoerak sendotzeko metodologiari buruzko legezko neurri egokiak hartzea, toki sektore publiko osoak egindako jardueraren erabateko ikuspegia emateko helburuarekin.

- Dagokion arazuko xedapena onartzea, Foru Komunitateko toki entitateei Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzeko helburuarekin.

- Toki kontularitza berritzea eta Kontularitza Publikorako Plan Orokor indardunera egokitzea, administrazio publiko guztien artean kontularitza- ren alorreko normalizazioa lortzea komeni baita.

- *Eguneratzea Toki Entitateen Erregistroa, toki entitateen mendeko sozietate publikoei eta haien fundazioei buruzko informazioarekin.*

Toki entitateentzako aholkuak:

- *Erakunde autonomoen eta udal merkataritza-sozietateen kudeaketa ekonomikoaren barne-kontrola egitea, aplikatzekoa zaion legerian ezarritako hedapenarekin, hau da, kontu-hartzaitzaren, finantzen eta eraginkortasunaren hiru ikuspegietatik.*

- *Udal-ondasun eta -eskubide guztien inbentario balioztatua eta eguneratua egitea, eta ibilgetu-aren kontuekin lotzea. Helburu horretarako, egokia litzateke inbentariorako programa informatiko bat diseinatzea, kontularitzarekin lotua, eta inbentarioren kudeaketari buruzko prozedura orokorrak eta irizpide uniformeak definitzea. Horri dagokionez, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak 2012ko martxoan onetsi zuen Nafarroako Gobernuaren premiatzea inbentaria kudeatzeko aplikazio informatiko bat gara dezan.*

- *Lurzoruaren udal-ondarearen erregistroa sortzea eta bertan sarrerak eta irteerak modu justifikatuan sartzeari, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritako helburuetarako.*

- *Udalaren lurzoru-ondarea eta Udalaren gainerako ondasunak bereizirik kudeatzea, eta udal-ondasunen inbentario orokorrean adieraztea eta zehaztea lurzoruaren ondareari dagozkienak eta beren izaera, hirigintzaren alorreko legeetan ezarritako helburuei lotuta.*

- *Toki entitateek beren burua antolatzeko ahalmena erabiliz, tokiko zerbitzu publikoak eraginkortasunez, ekonomiaz eta efizientziaz kudeatzeko antolamendu-egitura arrazoizkoena diseinatzea.*

- *Inbertsio-plan egingarri bat idaztea, non inbertsioen bideragarritasuna eta errentagarritasuna aztertuko den, batez ere garrantzia handiena duten inbertsioei dagokienez. Halaber, inbertsio horiek sortzen duten gastu arrunta aztertzea.*

- *Gaur egun Toki Administrazioan zerbitzu publikoen kostuen metodologia hobetzea eta erabakiak hartzeko kudeaketa-adierazle baliagarriak definitzea.*

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, M^{re} Asunción Olaechea Estanga auditore andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2012ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak Eguesibarko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukiarari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (18. or.).
- II. Helburua (21. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (21. or.).
- IV. 2001ko kontu orokorrari buruzko iritzia (22. or.).
 - IV.1. Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorra (22. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (22. or.).
 - IV.3. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2011ko abenduaren 31n (23. or.).
 - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (25. or.).
- V. Udalaren 2011ko kontu orokorraren laburpena (26. or.).
 - V.1. 2011ko aurrekontu-betetzearen egoera-orria (26. or.).
 - V.2. 2011ko aurrekontu-emaizta (27. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2011ko abenduaren 31n (27. or.).
 - V.4. Egoera-balantze bateratua (Udala eta Andacelay, SL) (28. or.).
 - V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua (Udala eta Andacelay, SL) (29. or.).
- VI. Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondoioak eta gomendioak (30. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak (30. or.).
 - VI.2. Langileak (30. or.).
 - VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (32. or.).
 - VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (33. or.).
 - VI.5. Inbertsioak (34. or.).
 - VI.6. Aurrekontu diru-sarrerak (35. or.).
 - VI.7. Hirigintza (37. or.).
 - VI.8. Andacelay, SL sozietate publikoa (38. or.).
 - VI.9. Gestión y Promoción Egüés 21 SA eta Gestión y Promoción Egüés 21-II SL sozietate mistoak (39. or.).
- I. Gehigarria: "Gestión y Promoción Egüés 21, Sa" sozietate mistoaren 2011ko ekitaldiari dagozkion egoera-balantze laburtua eta galeren eta irabazien kontu laburtua (41. or.).
- II. Gehigarria: "Gestión y Promoción Egüés 21-II, SI" sozietate mistoaren 2011ko ekitaldiari dagozkion egoera-balantze laburtua eta galeren eta irabazien kontu laburtua (43. or.).


I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Eguesibarko Udalaren eta haren menpeko enteen 2011ko kontu orokorraren erregularatasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Eguesibarko Udalak 53,57 km² ditu; Altzuza, Ardanatz, Azpa, Badoztain, Egues, Elkano, Elia, Ibiriku, Olatz eta Sagasetako kontzejuek, Etxalatz, Amokain, Erantsus, Elizmendi eta Egulbatiko jauerrerriek eta Uztarroze, Gorraitz eta Sarrigurengo herriguneez osatzen dute.

2011ko urtarrilaren 1ean, 16.222 biztanle zituen; horietatik, ehuneko 85 Sarrigurenen eta Gorraitzen bizi dira. 2006tik, udalerririk hirukoiztu egin du bere biztanle-kopurua.

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osara ondoko grafikoan agertzen da:



2011ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

- Administrazio publikoaren sektorea:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2011-12-31n
Udala	9.903.183	8.219.056	99

• Sozietate publikoak. 2004ko urrian, Udalak Andacelay, SL Udalaren hirigintza-sozietatea sortu zuen, bazkide bakarra Udala duela. Sozietate horrek ehuneko 51eko partaidetza dauka "Gestión y Promociones Egüés 21, SA" sozietate mistoan

–2005ean sortua– eta "Gestión y Promociones Egüés 21-II, SL" sozietate mistoan –2010ean sortua–. Bi sozietate hauetan bazkide pribatua berada. Ondoren sozietatearen funtsezko datuak adierazten dira:

Enpresa publikoak	Diru-sarrerak	Gastuak	Langileak, 2011-12-31n	Ekitaldiko emaitzak	Epe luzerako zorra
Andacelay, SL	8.092.810	8.098.160	-	(5.350)	4.900
Gestión y Promoción Egüés 21, SA	172.320	208.699	-	(36.379)	129.583
Gestión y Promoción Egüés 21 II SL	5.964.082	6.374.486	-	(410.404)	8.043.545

Sozietate hauek udaletxean dute beren egoitza soziala.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo inte-

gralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoak eta ibai-parkearen kudeaketakoak. Udalak, 2011n, honako ekarpenak egin dizkio mankomunitate horri:

Zerbitzuak	2011ko ekarpenak
Eskualdeko hiri-garraioa	222.071
Ibai-parkearen kudeaketa	38.608
Guztira	260.679

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri direnak dira:

Udal zerbitzuak	Udala	Merkataritza sozietate osoa	Mankomunitatea/Partzuergoa	Zerbitzu kontratuak	Errenta mendua	Merkataritza sozietate mistoak
Zerbitzu administratibo orokorrak	X					
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X					
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	X					
Genero indarkeriaren prebentzioa				X		
Lehen eta bigarren hezkuntzako hezkidetzak				X		
Atezaintza	X					
Berdintasun-zerbitzuak	X					
Tokiko enplegu- eta garapen-zerbitzuak	X					
Kirolak	X					
Kultura	X					
Musika eskola	X					
Hirigintza	X	X				X
Lorategiak	X			X		
Uraren ziklo integrala			X			
Hiri-hondakinak			X			
Garraio Publikoa			X			
Haur hezkuntzako zentroaren Zerbitzua, 0-3	X			X		
Kultura-etxearen kudeaketa	X			X		
Udal eraikinen garbiketa eta mantentze-lanak				X		
Jubilatuaren klubeko ile-apaindegiaren				X		
Kale-garbiketa				X		
Kirol-instalazioen funtzionamendua				X		
Kirol-instalazioetako taberna-jatetxearen					X	
Udal ludoteka	X			X		
Kulturetxeko taberna-kafetegiaren kudeaketa					X	
Gazteen lokala-gaztetxearen kudeaketa	X			X		
Udako hiri-kanpalekuaren kudeaketa	X			X		
Diru-bilketa exekutiboa	X			X		

Toki entitateari 2011ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langile-riaren Estatutua.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki-entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriak buruzkoa.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen alorrean, Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira araubide juridikoa ezartzen dutenak.
- Eguesibarko Udalaren 2011ko aurrekontua betetzeko oinarriak eta Udalaren gainerako barne-arauak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa eta mugak. Laugarrenean, 2011ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarrenean, Udalaren barne-antolaketa eta -kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioak eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo; halaber, Andacelay, SL Udalaren hirigintza-sozietatearen eta haren partaidetza duen sozietatearen azterketa bat jasotzen da.

Horrez gainera, Gestión y Promoción Egüés 21, SA eta Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL sozietate mistoen 2011ko urteko kontuen bi laburpen-eranskin eskaintzen dira, informazio modura.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Eguesibarko Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Eguesibarko Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitu zen urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.
- Eguesibarko Udalak 2011n izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.
- Udalaren finantza-egoera 2011ko abenduaren 31n.
- Ganbera honek 2010eko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txosten honetan, Udalak ezarritako barne kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

Zehaztu beharra dago ezen txosten hau idazteko garaian, fiskalizatutako ekitaldiko, alegia, 2011ko ekitaldiko Udalaren kontu orokorra Osoko Bilkurak onetsi gabe dagoela, Udaleko talde politikoak ez direlako ados jarri.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Eguesibarko Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Entitatearen beraren kontua: Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko

aurrekontu-emaiza, diruzaintza-gerakina, egoerabalantzea eta emaitzen kontua.

- Andacelay, SL hirigintza-sozietatearen urteko kontuak.

- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera-orria, kontu-ikuskaritzaren txostena eta kontu bateratua (Udala eta Andacelay, SL sozietatea).

Zorraren egoeran ez dira aipatzen udal-sozietateen kreditu-operazioak.

Sozietate mistoen urteko kontuak informazio osagarri gisa gehitzen dira Udalaren kontu orokorraren espedientean.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz eta azterlan honen helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz egin da lana, laginen teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikus-tekoa aplikatuz, besteren artean.

Zehazki, Udalari dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia eta aplikaturiko oinarriko prozedura administratiboak aztertu dira; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak ere ebaluatu dira.

Andacelay, SL sozietatearen eta Gestión y Promoción Egüés 21, SA eta Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL sozietateen 2011ko urteko kontuak badute kanpoko kontu-ikuskatzaileek egindako finantzen kontu-ikuskaritzaren txosten bat. Sozietate hauen eragiketa nagusiek, Sektore Publikoko entitateak diren aldetik, aplikatzekoak zaizkien lege-printzipioak, administrazio-kontratazioari dagozkionak, batez ere, eta Udalak kontratazio horiekiko aplikatu behar dituen kontrol-mekanismoak betetzen dituzten begiratzea izan da batez ere sozietate hauei dagokienez egin dugun lana.

Lan honek muga bat izan du, hala ere: ezin izan dugu iritzirik eman Udalak 2011ko ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak zenbateraino bete dituen adieraziz, Nafarroako Gobernuak oraindik ere printzipio horiei Foru Komunitate honetako udaletan aplikatzeko araudi berezia eman ez duelako.

IV. 2011ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren irismenari segokion bezala, Eguesibarko Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea eta kontuaren beraren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Iritzia eman baino lehen, ganbera honek nabarmendu nahi du nolako zalantzazko, segurtasun faltako eta nola edo halako ezjakintasuneko egoeran garatzen ari den udal jarduera azken garai hauetan; izan ere, egoera horrek ez du laguntzen kudeaketa publikoa normal gauza dadin.

2011n, bestalde, Udalak ikerketa batzorde bat sortu zuen azken urteetan bai Udalak, bai haren sozietate publikoek egin dituzten kontratazio- eta kudeaketa-prozedura batzuk direla eta. Batzorde horren ondorioak Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zituen 2012ko maiatzean, eta ondorio horiek Agoizko Epaitegiari, fiskaltzari eta Foru Ogasunari helarazi zitzaizkien, jarduketa horietatik erator litezkeen erantzukizunak erabaki zitzaizkien.

2011ko kontu orokorra onetsi gabe dago, Udaleko talde politikoak ados jarri ez direlako.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau ateratu dugu:

IV.1. UDALAREN 2011ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

- Zalantza batzuk badaude ikerketa batzorde horrek aurrera eraman dituen jarduketak direla-eta Udalak nozi litzakeen ondorio ekonomikoei buruz.

Aurreko lerrokadan aipatutako zalantza horiek zertan bukatzen diren ezagututa doikuntzaren bat egin beharra izanez gero, doikuntza horrek zer eragin izanen duen kanpoan utzita, Udalaren 2011ko ekitaldiari dagokion kontu orokorrak zehazki jasotzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko beharrezko informazioa biltzen du, aplikatzeko den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren irismenaren arabera, Udalaren jarduera ekonomiko finantzarioa, oro har, legezko-

tasun printzipioari jarraituz garatu da; hala ere, kontratazio administratiboari dagokionez indarrean dagoen araudiaren zenbait puntu ez direla bete ikusten da, kontratu-aldaketako espediente batzuk izapidetu ez direlako batez ere.

Bestalde, ganbera honek udal honi buruzko txostenetan behin eta berriz esan izan duen beza-la, hirigintzaren kudeaketa gardentasun eta kontrol maila handienarekin egin behar da, udal kudeaketarako oinarritzko arlo horretan baliabide ekonomiko handiak erabiltzen baitira. Udalak, jarduera hori egiteko, hirigintza sozietateak sortzeak eragotzi egiten du printzipio horiek betetzea, eta zailagoak dira, hartara, antolamendua, udal kudeaketa eta kontrola.

IV.3. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2011ko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 8,6 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 17 –hau da, 1,5 milioi– handitu da aurrekontu-aldaketan bitartez: Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 10,1 milioikoak dira.

Aldaketak kreditu-gerakinen gehikuntzei, kreditu bereziei eta kreditu-osagarriei dagozkie; hain

zuzen ere, inbertsio errealen, ondasun arrunten eta zerbitzuen eta kapitaleko transferentzien kontusail batzuk handitzeko erabili direnei.

Aitortutako betebeharrak 9,9 milioi euro egiten dute, eta haien betetze orokorra ehuneko 98koa da. Kapitulu guztiak nahiko homogeenak dira betetzeari dagokionez.

Aitortutako eskubideek 8,2 milioi euro egiten dute, eta betetze-maila % 82koa izan da. Maila horretan, nabarmentzekoa da zeharkako zergen kapitulua (ehuneko 69ko portzentajearekin), EIOZa dela-eta aurrekontuan jasotakoa baino gutxiago bildu baita.

Gastuen izaerari begiraturik gero, gastu arruntek eta kapitaleko gastuek nahiz finantza-eragiketen gastuek gastu guztien ehuneko 82 eta ehuneko 18 egiten dute, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak guttizkoaren ehuneko 98 dira; diru-sarreraren ehuneko 41, berriz, jasotako transferentzietatik heldu dira (ehuneko 38 transferentzia arruntetatik eta ehuneko 3 kapital-transferentzietatik).

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza-bidea	Zenbatekoa
Langileak	39	Tributu bidezko diru-sarrerak	57
Bestelako gastu arruntak	43	Transferentziak	41
Kapital-gastuak	15	Ondarearen diru-sarrerak eta beste batzuk	2
Finantza-zama	3		
	100		100

Hona Udalaren 2011rako aurrekontuaren bete-tzeari eta betetze horrek 2010etik izan duen bila-kaerari buruzko datu ekonomikoak:

	2010	2011	Aldaketaren portzentajea 2011/2010
Aitortutako betebeharrak, guztira	10.343.005	9.903.183	-4
Likidatutako eskubideak, guztira	9.653.865	8.219.056	-15
Gastu-betetzearen ehunekoa	95	98	
Diru-sarreraren betetzearen ehunekoa	89	82	
Ordainketen ehunekoa	81	90	
Kobrانتzen ehunekoa	84	93	
Gastu arruntak (1etik 4ra)	7.309.027	8.086.725	11
Funtzionamendu-gastuak (1, 2 eta 4)	7.308.790	8.086.725	11
Inbertsio errealeen gastuak (6 eta 7)	2.613.371	1.526.134	-42
Finantza eragiketen gastuak (8 eta 9)	420.607	290.324	-40
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	8.635.546	8.002.382	-7
Tributu bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	5.623.385	4.664.294	-17
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6tik 9ra)	1.018.319	216.674	-79
Diru-laguntzen menpekotasunaren ehunekoa	38	42	
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (ehunekoa)	77	58	
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-268.533	-1.393.802	419
Aurrekontu-emaizta doituia	501.855	-672.658	-234
Aurrezki gordina	1.326.519	-84.342	-106
Finantza-zama (3tik 9ra)	420.845	290.324	-31
Aurrezki garbia	905.674	-374.667	-141
Zorpetze-mailaren ehunekoa	4,87	3,63	
Zorpetzearen mugaren ehunekoa	15,36	-1,05	
Zorpetze-ahalmenaren ehunekoa	10,49	-4,68	
Diruzaintza-gerakina, guztira	3.552.484	1.477.839	-58
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	3.343.607	1.477.839	-56
Udalaren zor bizia	290.325	0	-

2011n, Udalak ehuneko 4 gutxiago gastatu du; diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 15 txikiagoak izan ditu. Aitortutako bete-beharren gutxitzea sortu da, funtsean, inbertsio errealek behera egin dutelako -1,4 milioi gutxiago-koak izan dira-. Beherakada horrek langile-gastuen arloan -0,2 milioi- eta ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketen arloan -0,7 milioi- gertatu diren igoerak konpentsatu ditu.

Diru-sarreraren arloan, beherakada nabarmenagoa izan da. Gehien jaisten diren kapituluak zeharkako zergena eta kapitaleko transferentzia dira,

bakoitzak 0,8 milioi egin baitu behera. Beherakada konpentsatu da, neurri batean, transferentzia arrunten kapituluko diru-sarrerak gora egin dutelako -0,4 milioi-.

Gastu arruntetan, ehuneko 11ko igoera izan da; diru-sarrera arruntetan, aldiz, ehuneko 7ko jaitziera izan da. Gastu arrunten arloan izandako igoeraren arrazoia da gastuek gora egin dutela langileen kapituluaren eta, bereziki, ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketaren kapituluaren. Diru-sarrerari dagokienez, beherakada justifikatuta dago diru-sarreraren kapituluaren izandako jaitzierengatik.

Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa 1,4 milioi negatiboa da. 2010ean ere negatiboa izan zen (-0,3 milioi, hain zuzen). Saldo horrek erakusten digu diru-sarrera ez-finantzarioak ez direla nahikoak izaera bereko gastuak finantzatzeko.

Ekitaldia ixtean, aurrekontuko emaitza bateratu doituari, 673.000 euroko defizita izan da. 2010ean, emaitza 502 milioi euroko superabita izan zen.

Bai aurrezki gordina, bai aurrezki garbia 2010ean saldo positiboak izatetik 2011n saldo negatiboak izatera pasa dira.

Diruzaintza-gerakina, guztira, 1,5 milioi eurokoa da, eta 2010ean 3,6 milioi eurokoa izan zen. Gastu arruntetarako diruzaintza-gerakina edo hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko gaitasuna neurtzen duen adierazlea 1,5 milioi positiboa da, eta nabarmen jaitsi da 2010ekoaren aldean, orduan magnitude hori 3,3 milioiko balioa baitzuen.

Udalaren eta Andacelay, SL udal-sozietatearen balantze bateratuko eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak 5,4 milioi eurokoak ziren 2011ko abenduaren 31n (10,2 milioi euro 2010ean). Likidezia-gaindikin hauekin, udal sozietateak munta handiko inbertsioak finantzatu ditu Udalaren alde.

2011ko abenduaren 31n, Udalak ez du epe luzeko zorrik.

Laburtuz, bada, Udalaren finantza-egoeraren ezaugarria da diruzaintza-gerakin nabarmena daukala -1,5 milioi euro-, aurreko ekitaldietako hirigintza-jarduerak sortua funtsean. Alabaina, krisi ekonomikoko egoera okerrera eramaten ari da magnitude finantzarioak, eta horrek ekarri du diru-sarrera arruntak ez izatea emandako zerbitzuen funtzionamendu-gastuak finantzatzeko behar adinakoa; gainera, kapitaleko eragiketen zati handi bat diruzaintzako gerakinarekin finantzatu behar izan dira, eta hori da magnitude horrek ehuneko 56 behera egitearen arrazoia eta aurrekontu doituaren emaitza okerrera egitearen arrazoia.

Horregatik, uste dugu Udalak plan ekonomiko-finantzario bat onetsi behar duela, gastu arruntei eusteko eta ohiko baliabideak sortzeko gaitasuna handitzeko aukera emanen diona; baina hori guztia ahaztu gabe kudeaketa hobetzeko neurriak, besteak beste honako alderdi hauetan: tarifak eta prezioak zerbitzuaren kostura egokitzea, inbertsioak lehenestea, diru-laguntzen politika berraztertzea, zenbait zerbitzuren neurria aztertzea eta derrigorrezkoak izan gabe emandako zerbitzuek beren burua finantzatzea. Gainera, kontuan hartu beharko du nolako eragina duten aurrekontuan

populazioak gora egin izanak eta inbertsio berriei eusteak.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arrisku-ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzek eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarrizko baldintza izan behar dute.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Ganbera honek 201ko ekitaldiari buruz emandako txostenari dagokionez:

1. Honako gomendio garrantzitsuak ezarri dira edo ezartzeko fasean daude:

- *Langileen kontratazio-espeditenteen kontrol bat edukitzea eta artxibatzea.*

- *Kontratuen bilgune zentralizatu bat sortzea, kontratu horien jarraipena behar bezala egiteko.*

2. Oraindik betetzeke daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, gomendio garrantzitsu hauek, besteak beste:

- *Udalak bere antolamendua erabakitzeke ahalmena eta hirigintza kudeaketako egokien irizten dion modua hautatzeko autonomia gorabehera, jarduera hori hirigintza-sozietateen bidez kudeatzeko egungo modua, eta kudeaketa modu hori Udalak bilatu beharreko interes publikoari ongi egokitzen zaion aztertzea.*

- *Udalak bizi izan duen populazio-igoera dela-eta, gaur egungo zerbitzuak ematearen ondorioz nahiz inbertsio berrien ondorioz aldaketa horrek izanen duen eragina balioestea.*

- *Dokumentazioa kudeatzeko eta artxibatzeke prozedura eraginkorrak ezartzea, eta dokumentazio osoa artxibatzeke artxibo orokor bat sortzeko aukera aztertzea.*

- *Administrazioko alor bakoitzeko arduradunek, espeditenteak eta egin beharreko jarduerak direla-eta araudi indardunak eskatzen duen dokumentazioa behar bezala betetzen dela ikuskatzea.*

- *Kontratazioaren arloko araudi indarduneari ezarritakoa betetzeke eta hartan aurreikusitako kasuetan kasuko kontratu-aldaketak egitea.*

• *Udal zerbitzuak eskaintzeko hain garrantzitsuak diren obren plangintza eta kudeaketa Udalak berak egin, kontrolatu eta finantzatu behar ditu, gure iritzian.*

Azkenik, Udal honetan eta Nafarroako tokiko sektore publiko osoan eragina duen alderdi orokor gisa, lehentasunezkoztat eta presakotzat jotzen dugu Nafarroako Gobernuak gara dezala nola aplikatu behar zaizkien Nafarroako toki entitateei Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza-iraunkor-

tasunari buruzko Lege Organikoan jasotako aurrekontu-egonkortasuneko printzipioak, haien aurrekontuetan, eta, horrenbestez, finantza-egoeran printzipio horiek eragin ditzaketen inplikazio praktikoak direla eta.

V. UDALAREN 2011ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, 2011ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak azaltzen ditugu:

V.1. 2011ko AURREKONTU-BETETZEAREN EGOERA-ORRIA:

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren ehunekoa	Ordainketak	Ordaintzeke dagoena	Ordaintzeke dagoenaren ehunekoa
1. Langile-gastuak	3.716.193	133.167	3.849.360	3.836.810	100	3.766.798	70.012	2
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	3.170.645	391.489	3.562.134	3.548.193	100	2.798.296	749.897	21
4. Transferentzia arruntak	732.122	(21.167)	710.955	701.722	99	661.923	39.799	6
6. Inbertsio errealak	635.802	670.259	1.306.061	1.221.552	94	1.042.965	178.587	15
7. Kapital-transferentziak	10.000	322.000	332.000	304.582	92	304.582	0	-
9. Finantza-pasiboak	301.000	-	301.000	290.324	96	290.324	0	-
Guztira	8.565.762	1.495.748	10.061.510	9.903.183	98	8.864.888	1.038.295	10

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Behin betiko aurreikuspena kreditua	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoaren ehunekoa	Kobrantsak	Kobratzeke dagoena	Kobratzeke dagoenaren ehunekoa
1. Zuzeneko zergak	2.525.110	-	2.525.110	2.469.072	98	2.352.778	116.294	5
2. Zeharkako zergak	1.171.372	-	1.171.372	808.142	69	802.253	5.889	1
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.197.579	162.063	1.359.642	1.387.080	102	1.181.427	205.653	15
4. Transferentzia arruntak	3.012.182	52.354	3.064.536	3.116.127	102	2.921.074	195.053	6
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	165.577	52.089	217.666	221.961	102	195.771	26.190	12
6. Inbertsio errealak besterentzea	273.000	-	273.000	-	-	-	-	-
7. Kapital transferentziak	220.942	-	220.942	216.674	98	216.674	-	-
9. Finantza-pasiboak	-	1.229.242	1.229.242	-	-	-	-	-
Guztira	8.565.762	1.495.748	10.061.510	8.219.056	82	7.669.977	549.079	7

V.2. 2011ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2010eko ekitaldia	2011ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	9.653.865	8.219.056
- Aitortutako betebeharrak	-10.343.005	9.903.183
= Aurrekontu-emaiza	-689.140	-1.684.127
Doitzeak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-172.314	-108.448
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	761.661	-
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzaturiko gastuak	601.648	1.119.917
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak	-	-
= Aurrekontuaren emaitza doitua	501.855	-672.658

V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2011ko ABENDUAREN 31n

	2010eko ekitaldia	2011ko ekitaldia
	1.825.385	827.440
(+) Gastuen Sarrerak: Aurtengo ekitaldia	1.523.041	549.079
(+) Gastuen Sarrerak: Itxitako ekitaldia	1.340.108	1.608.214
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	224.020	131.474
+ Ordainketen itzulketak	150	150
- Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	-3.627	-3.955
- Bilketa zaileko eskubideak	-1.258.307	-1.457.522
-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	-2.294.312	-1.366.248
- Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	-1.979.639	-1.038.295
- Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldia	-15.656	-17.167
- Diru-sarreraren itzulketak	-66.626	-66.626
+ Aplikatzeke dauden gastuak	628	1.078
- Aurrekontuz kanpoko gastuak	-233.019	-245.238
	3.912.963	2.016.647
+ Finantzaketa-desbideraketa metatu negatiboak	108.448	-
	3.552.484	1.477.839
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	0	-
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	208.877	-
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	3.343.607	1.477.839

V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA (UDALA ETA ANDACELAY, SL)

AKTIBOA

Deskribapena	2010eko ekitaldia	2011ko ekitaldia
A Ibilgetua	53.487.343	63.101.094
1 Ibilgetu materiala	36.617.629	46.457.178
2 Ibilgetu ez-materiala	455.920	486.425
3 Erabilera orokorrera bideratutako azpiegitura eta ondasunak	16.185.371	15.929.068
4 Herri-ondasunak	36.241	36.241
5 Finantza-ibilgetua	192.182	192.182
C Zirkulatuzailea	21.389.091	7.748.631
7 Izakinak	7.180.460	-
8 Zordunak	4.031.383	2.312.640
9 Finantza-kontuak	10.177.248	5.435.991
Aktiboa, guztira	74.876.434	70.849.725

PASIBOA

Deskribapena	2010eko ekitaldia	2011ko ekitaldia
A Funts berekiak	70.884.462	69.472.924
1 Ondarea eta erreserbak	60.750.189	64.552.111
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	4.914.565	(483.549)
3 Kapitaleko diru-laguntzak	5.219.708	5.404.362
C Epe luzeko hartzekodunak	300.124	4.900
4 Prestamenak, maileguak eta fidantzak eta jasotako gordailuak	300.124	4.900
D Epe laburreko hartzekodunak	3.691.848	1.371.901
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	3.688.221	1.367.945
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	3.627	3.956
Pasiboa, guztira	74.876.434	70.849.725

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA (UDALA ETA ANDACELAY, SL)

Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKOA		
Deskribapena	Zenbatekoa, 2010	Zenbatekoa, 2011	Deskribapena	Zenbatekoa, 2010	Zenbatekoa, 2011
3 Hasierako izakinak	2.490.542	7.187.390	3 Bukaerako izakinak	7.187.390	0
60 Erosketak	7.781.024	-	70 Salmentak	4.697.009	8.770.147
61 Langile-gastuak	3.743.561	3.937.546	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	910.942	(41.432)
62 Finantza-gastuak	238	0	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	3.552.649	2.692.280
63 Tributuak	9.690	294	73 Zerga arruntak, errentaren eta ondasunaren gainekoak	394.298	460.832
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	2.880.185	3.572.615	75. Ustiapeneko diru-laguntzak	2.484.612	0
65 Gizarte-prestazioak	0	0	76 Transferentzia arruntak	2.693.349	3.116.127
66. Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	296.989	124.102
67 Transferentzia arruntak	766.975	701.722	78 Bestelako diru-sarrerak	392.478	202.196
68 Kapital-transferentziak	8.551	304.582	79 Beren helbururako aplikaturiko hornidurak	0	0
69 Amortizazio eta zuzkiduretarako hornidura	571	333			
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	4.928.379	0	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	380.230
Guztira	22.609.716	15.704.482	Guztira	22.609.716	15.704.482

Ekitaldiko emaitzak

ZORRA			HARTZEKOA		
apena	Zenbatekoa, 2010	Zenbatekoa 2011	Deskribapena	Zenbatekoa, 2010	Zenbatekoa, 2011
(saldo zorduna)	0	380.230	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	4.928.379	0
reko emaitzak (saldo zorduna)	12.066	20.942	82 Ekitaldiko aparteko emaitzak (saldo zorduna)	0	0
-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
ekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	1.748	82.377	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	0
hartzekoduna)	4.914.565	0	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	483.549
	4.928.379	483.549	Guztira	4.928.379	483.549

VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTE- EI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- Udalaren Osoko Bilkurak 2010eko abenduaren 15ean eman zion hasierako onespina 2011ko ekitaldirako aurrekontuari; behin betiko onespina, berriz, 2011ko urtarrilaren 28an eman zion, legez ezarritako jendaurreko epea iragan ondoren. Behin betiko aurrekontua 2011ko otsailaren 11n argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

- Aurrekontu Orokorren espedienteak ez du jasotzen 270/1998 Foru Dekretuak eranskinen zerrenda dela-eta aurreikusitako dokumentazio guztia; honakoei buruzkoa, batez ere: aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, Udalaren urteko eta laurteko inbertsioen eta haiek finantzatzeko moduen eranskina, zorraren egoera-orria eta osoki edo gehienbat bere menpekoak diren merkataritza-sozietateei buruzko informazioa.

- Txosten hau egiteko egunean, Udalaren kontu orokorra onetsi gabe dago; azkeneko aldiz, 2012ko irailaren 28ko osoko bilkuran bota zuten atzera.

- Sozietate mistoen urteko kontuak informazio osagarri gisa gehitzen dira kontu orokor horren espedientean.

- Hornitzaileei egindako ordainketen lagin baten azterketa egin ondoren, ondorioztatzen da Udalak ez dituela beti bete Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legean eta Merkataritza-eragiketetan Berankortasuna Eragozteko Neurriak ezarri zituen 15/2010 Legean ezarritako ordainketa-epeak. Egiaztatu da, Udalak 2011n ez duela inolako zenbatekorik ordaindu arrazoi horrengatik berandutza-interesengatik.

- Gabeziak detektatu dira zenbait espedienteren dokumentazioaren gaineko kontrolari, kudeaketari eta artxibatzeari dagokienez. Zenbait kasutan, ezin izan dugu egiaztatu kontratazio-espedienteei eta beste arlo batzuei buruzko araudiaren arabera egon beharko lukeen dokumentazioa egiaz badagoen.

- Txosten hau idazteko garaian, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epai bat ezagutu da, zeinak

baiesten baitu enpresa batek Gorraitzen apartamentu-hotel bat eraikitze baimena kendu zitzaiolako jarritako ondare-erantzukizuneko erreklamazio-epaiaren kontra Udalak jarritako auzi-errekurtsoa. Kontrako errekurtsoa jarri zaion Udalaren kontrako epaiak 6,96 milioi euroko zenbatekoan finkatu zuen ondare-erantzukizun hori. Epaiak irmoa denez eta errekurtsorik aurkezteko aukerarik ez dagoenez, desagertu egin da Udalaren diru-kutxarako oso handia zen zalantza ekonomiko hori.

Gure gomendioak:

- *Udalaren aurrekontu orokor bakarra onestea, indarrean dagoen legedian ezarrita dauden epeei eta edukiari jarraituz.*

- *Udalaren kontu orokorra indarrean dagoen legediak ezartzen duen epearen barruan onartzea.*

- *Kontu orokorra osatzea, Gestión y Promoción Egüés 21, SA eta Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL sozietate mistoei buruzko datuak eranskin gisa jasoz.*

- *Zorren egoera-orrian aurkeztea legez araututa dagoen informazioa Udalaren partaidetza duten merkataritza-sozietateei –Andacelay, SL, Gestión, Promoción Egüés 21, SA eta Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL– buruz.*

- *Hornitzaileei ordaintzerakoan, legez ezarritako epeak betetzea.*

- *Dokumentazioa kudeatzeko eta artxibatze prozedura eraginkorrak ezartzea, eta dokumentazio osoa artxibatze artxibo orokor bat sortzeko aukera aztertzea.*

- *Administrazioko alor bakoitzeko arduradunek, espedienteak eta egin beharreko jarduerak direla-eta araudi indardunak eskatzen duen dokumentazioa behar bezala betetzen dela ikuskatzea.*

- *Udalaren kontu orokorretan kontabilitate publikoaren planak agintzen duen Memoria sartzea.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen atalaren gastuak 3,8 euro egiten du; hau da, 2011n sortutako gastu guztien ehuneko 39 eta gastu arrunten ehuneko 47.

2010eko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko 5 handitu da, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Aldaketaren portzentajea 2011/2010
	2010	2011	
Goi-karguak	78.856	61.860	-22
Funtzionarioak	1.115.859	1.074.556	-4
Lan-kontratu finkoa dutenak	392.034	459.564	17
Aldi baterako lan-kontratua	987.086	1.086.293	10
Gizarte zamak	1.072.528	1.154.537	8
1. kapitulua, guztira	3.646.363	3.836.810	5

Funtzionarioen gastuak behera egin du bai aplikatutako lansari-izoztearen ondorioz, bai langile batzuen eszedentzien ondorioz.

Langile finkoen gastuak gora egin du musikako irakasle batzuen lanaldiak luzatu direlako eta 2010eko amaieran lorezaintzako peoi bat eta gizarte langile bat lanean hasi direlako.

Aldi baterako langileen gastuak gora egin du nabarmen, oinarrizko gizarte zerbitzua, gizarte langileak eta enplegu sozial babestua bezalako arloetan kontratazio gehiago egin baitira; halaber, peoi eta zerbitzu anitzetako langile gehiago kontratatu dira. Hori zor zaio, alde batetik, ibarreko populazioak gora egin izateari eta krisi ekonomiko-

aren eraginei –azken hori dela eta, gehiago dira oinarrizko gizarte zerbitzuan artatzen diren kasuak–. Bestetik, berdegune gehiago izateak berarekin ekarri du lorezain eta peoi gehiago kontratatu behar izatea, haiek mantentzeko zereginetarako.

2011ko plantilla organikoaren behin betiko onespina 2012ko urtarrilaren 26an izan zen; 2012an zehar, plantillaren bi aldaketa onetsi dira. Guztira, plantillak 100 lanpostu dauzka. 2011ko abenduaren 31n guztira 60 lanpostu daude hutsik, nahiz eta 48 lanpostu aldi baterako kontratuekin beteta dauden.

Plantilla lanpostuen arabera banatzen da, honako taulei jarraituz:

Zenbat	Lanpostuak	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
Funtzionarioak	37	23	14	10
Lan-kontratu finkoa dutenak	62	16	46	38
Izendapen askekoak	1	1	-	-
Guztira	100	40	60	48

2011ko abenduaren 31n, Udalean 99 pertsonak egiten dute lan guztira. Hona xehetasunak:

Langileak	Udala
Udalbatzarkideak	1
Behin-behineko langileak - izendapen askekoak	1
Funtzionarioak	23
Lan-kontratudun finkoak	16
Administrazio-araubidean kontratatutak	39
Aldi baterako lan-kontratudunak	19
Guztira	99

2010arekin alderatuta, zazpi pertsona gutxiago daude lanean.

Udalaren aipatutako langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Korporatiboa	1
administrazioa eta zerbitzu orokorrak	11
Hirigintza	4
Udaltzaingoa	17
Lorezaintza eta ingurumena	7
Zerbitzu anitzak	16
Arlo ekonomikoa	2
Gizarte zerbitzuak	12
Kirolak	1
Kultura	3
Musika eskola	15
Babestutako enplegu soziala	10
Udala, guztira	99

2011n, ez da kontratazio prozedura berririk hasi ez funtzionario lanpostuak betetzeko, ez lan-kontratudun langile finkoak kontratatuzeko.

2011n egindako prozedurak aldi baterako kontratudun langileak kontratatuzeko izan dira. Honako prozedurak aztertu ditugu:

- Zerbitzu anitzetako lau peioi aldi baterako kontratatuzeko eta etorkizuneko kontratazioetarako zerrenda bat egiteko lehiaketa.

- Zerbitzu anitzetako ofizial lanpostu bat betetzeko lehiaketa.

Espediente horiek aztertuta, ondorioztatzen da Udalak egoki betetzen duela indarrean dagoen araudia, administrazio publikoen zerbitzuko langileak sartzeko araubideari dagokionez.

Gainera, langileen lagin bat hartuta, egiaztatu da ordaindutako lansariak betetako lanposturako ezarrita daudenak direla, eta atxiki penak eta langile guztien 2011ko soldata-izozteak zuzenak izan direla. Hala eta guztiz ere, zenbait kasutan, akats batzuk –ez nabarmenak– aurkitu ditugu osagarriren baten kalkuluetan eta PFEZari buruzko atxiki penetan.

Azkenik, Udalaren absentismoa aztertu dugu, eta ehuneko 7,4ko portzentajea gertatzen dela aurkitu dugu; 2.405 egun naturalen adinakoa da absentismo hori. Epe luzeko bajak kenduta (hiru pertsona daude 100 eguneko baina baja luzeagoak dituztenak), portzentajea ehuneko 5,6koa da –hau da, 1.830 egunekoak–. Lanera ez joateen

arrazoi nagusiak gaixotasunaren, istripuen eta amatasun-baimenengatikoko bajak dira.

Gure gomendioak:

- *Indarrean den araudiaren testuinguruan, aurrekontu-zuzkidura duten bete gabeko lanpostu guztiak enplegu-eskaintza publikoan sartzea.*

- *Nominak egitearen gaineko kontrol egokia egitea, haien kalkuluan akatsak saiheste aldera.*

- *Udalak daukan absentismo-gradua arrazoizkoa den aztertzea.*

VII.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuek 3,5 milioi euro egin dute 2011ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 36 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 44 egin dute. 2010. urtearen aldean, ehuneko 23 egin dute gora.

2010arekin alderatuta gertatu den igoera hori funtsean oinarrituta dago honako kontusailekin lotutako gastuak gora egin izatean: eraikinen eta bestelako kontserbazioa, ikastetxeen garbiketa, haurtzaindegia kudeaketa (Sarrigurenen hiru garren haurtzaindegia ireki delako), familiak artatzeko zentro berriaren kudeaketa, eta lorezaintzaren mantentzea, berdegune gehiago egotearen ondorioz.

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

Deskribapena	Kontratu-mota	Adjudikatzeko prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa
0-3 urteko haur hezkuntzako lehenengo zikloko ikastetxearen kudeaketa.	Laguntza	Irekia, Europako mugatik gora / eskaintzarik onena	616.951	1	616.951
Familiak artatzeko zerbitzua	Laguntza	Irekia, Europako mugatik gora / eskaintzarik onena	307.890	4	304.576

Aurreko azterketatik eta kontratu indardunen gainean edo/eta 2011n amaitutakoen gainean egindakotik ondorioztatzen da Udalak nahiko ongi betetzen duela kontratazioaren alorrean aplikatzea den araudia, honako salbuespen hauekin:

- Adjudikazio espeditenteetan aurkitutako akats batzuk, kontu-hartzailetzaren txostenik ez egotearekin edo adjudikazioa atzerapenez argitaratzearekin lotutakoak.

- Zerbitzuen prestazio batzuek 2011n izan duten gastu-bolumenari eutsiz gero, beharrezkoa izanen litzateke zenbatekoari egokitutako kontratazio-prozedura bat izapidetzea.

- Kontratu batzuek kontratazio publikoan baimenduta dagoen urte-muga gainditzen dute.

- Ez da beti ageri behar den kontratu-aldaketa, kontratuaren betetzeak lizitazio-zenbatekoa ehuneko 10etik gora gainditzen duenean.

Gure gomendioak:

- *Espeditente guztiak osatzea kontratazio araudiak exijitzen dituen izapide guztiekin, eta hartan ezarritako publikitate epeetara egokitzea.*

- *Urteko gastuaren bolumena alde zurretik balioets daitekeen kasuetan, behar diren kontratazio-espeditenteak izapidetzea.*

- *Behar diren kontratazio prozedurak hastea kontratuaren iraupenak kontratazio araudian ezarritako muga gainditzen duenean.*

- *Fakturatutako gastuak adjudikazio-zenbatekoa ehuneko 10etik gora gainditzen duenean, kontratuan egin beharreko aldaketak egitea, lege indardunean ezarritako moduan (Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeko 108. artikulua).*

VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentzia arruntengatiko gastuak 0,7 milioi egin dute, eta 2011n sortutako gastu guztien ehuneko 7 dira.

Kapital-transferentziengatiko gastuak 0,3 milioi-koak izan dira 2011n, eta urte horretan sortutako gastu guztien ehuneko 3 dira. 2010ean, ez zegoen gisa horretako gasturik. Gastu horrekin, oinezko-entzako iraganbide bat eta bizikletentzako errei bat partzialki finantzatu dira.

Honakoa da transferentzia arruntengatiko gastuak 2010eko ekitaldian eta 2011koan alderatzeko taula, artikuluz artikulukoa:

	Aitortutako betebeharrak		Aldaketaren portzentajea 2011/2010
	2010	2011	
Foru Komunitateari	27.018	22.655	-16
Toki entitateei	296.050	288.133	-3
Kirol klub eta elkartei	187.358	223.010	19
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	256.549	167.924	-34
Transferentzia arruntak	766.975	701.722	-8

2010arekin alderatuta, gastu horiek ehuneko 8 egin dute behera, funtsean familientzako eta irabazi asmorik gabeko erakundeentzako transferentziek behera egin dutelako; esate baterako, oinarrizko gizarte zerbitzuaren aparteko laguntzak gutxitu dira -134.000 eurokoak izatetik 109.000 eurokoak izatera- eta familia ugarienezako, gazteentzako, GKE-entzako eta erlijio-erakundeentzako laguntzak kendu dira.

Kontzeptua	Zenbatekoa
Oinarrizko gizarte-zerbitzuarentzako laguntzak	109.458
Futbol klubarentzako diru-laguntza	70.500
Kontzejuei jaiak antolatzeke emandako	66.062
Gorraitz golf klubarentzako diru-laguntza	59.273
Guztira	305.293

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen da Udalak indarrean dagoen araudia behar bezala bete duela.

Udalak ez du ez ordenantza orokorrik, ez diru-laguntzen plan estrategikorik, nahiz eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak hori ezartzen duen; hala eta guztiz ere, diru-laguntzen ematea berariazko ordenantzen bidez erregulatuta dauka.

Gure gomendioak:

- *Egungo egoera ekonomikoan, Udalak jarraitzen duen diru-laguntzen politika aztertzea.*
- *Diru-laguntzen plan estrategiko bat egitea, eta bertan zehaztea helburuak, efektuak, aurreikusitako kostuak, baliabideen aurreikuspena, eragina eta abar.*

Toki entitateentzako diru-laguntzen barruan, Udaleko kontzejuen jaiak finantzatzera bideratutako 66.000 euro egotzi dira.

Bestalde, ehuneko 19 egin dute gora kirol klub eta elkarteentzako diru-laguntzek. Bi klubi emandako diru-laguntzek izaera horretako gastuaren ehuneko 58 egiten dute.

Honakoak dira 2011n emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

- *Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onartzeko egonkortasuna aztertzea.*

VI.5. INBERTSIOAK

2011. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (1,3 milioi euro) ehuneko 94 bete da, eta 1,2 milioira iritsi da; hau da, ekitaldiko aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 12.

2010arekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 53 -hau da, 1,4 milioi euro- egin dute behera. Behera egite hori zor izan zaio 2010ean bolumen garrantzitsua zuten obrak amaitu izateari; besteak beste, Sarrigurengo Ikastetxe Publikoa, Familiak Artatzeko Zentroa eta Kirol Instalazioak.

Honakoak dira 2011n egindako inbertsio garrantzitsuenak:

Inbertsioa	Zenbatekoa
Haur hezkuntzako ikastetxearen ekipamendua	192.900
Badoztaingo kontzejuren etxeko berritzea	126.592
Kirol instalazioetako ekipamendua	94.835
Sarrigurengo azokaren barrutia egokitzea	77.489
Transformadore elektrikoa tokiz aldatzea	59.775
Guztira	551.591

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

Deskribapena	Kontratu-mota	Adjudikatzeko prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintza k egin dituztenak	Zenbatekoa zenbatekoa
ntzako etxerako altzariak	Hornidura	Irekia, europar atalasetik behera /eskaintzarik onuragarriena	163.269	5	146.942
-hodietarako eta skulaziorako makinernidura	Hornidura	Irekia, Europako mugatik behera / eskaintzarik onena	83.443	3	83.002

Aurreko azterketatik eta 2011n amaitutakoen gainean egindakotik ondorioztatzen da Udalak nahiko ongi betetzen duela kontratazioaren alorrean aplikatzekoa den araudia, honako salbuespen hauekin:

- Adjudikazio espeditenteetan aurkitutako akats batzuk, kontu-hartzailetzaren txostenik ez egotearekin edo adjudikazioa atzerapenez argitaratzearekin lotutakoak.

- Ez da beti ageri behar den kontratu-aldaketa, kontratuaren betetzeak lizitazio-zenbatekoa ehuneko 10etik gora gainditzen duenean.

Gure gomendioak:

- *Espeditente guztiak osatzea kontratazio araudiak exijitzen dituen izapide guztiekin, eta hartan ezarritako publikitate epeetara egokitzea.*

- *Fakturatutako gastuak adjudikazio-zenbatekoa ehuneko 10etik gora gainditzen duenean, kontratuan egin beharreko aldaketak egitea, lege indardunean ezarritako moduan (Kontratu Publikoiei buruzko Foru Legeko 108. artikulua).*

VI.6. INGRESOS PRESUPUESTARIOS

2011ko ekitaldian aitortutako eskubideak 8,2 milioikoak izan dira; ehuneko 97 eragiketa arruntengatik diru-sarrerari dagozkien eta ehuneko 3, berriz, kapital-eragiketari.

Diru-sarrera arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak (4,7 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (3,1 milioi eurokoak) nabarmentzen dira. Kapital-eragiketetan, kapital-transferentziak dira azpimarratzekoak (0,2 milioi euro).

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 82,88koa izan da. Kapitulu guztietan ehuneko 100aren inguruko betetzea izan da, salbu eta zeharkako zergen kapituluaren, non betetzea ehuneko 69koa izan baita, Erripagaina aldeko EIOZa dela-eta azkenean bildu direnak baino diru-sarrera handiagoak kalkulatu baitziren.

2011ko ekitaldian, Andacelay, SL hirigintza sozietatetik jasotako dibidenduari zegozkion 115 mila euro erregistratu dira, 2010eko ekitaldiari zegozkion emaitzaren banaketa dela eta.

2010. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 15 egin dute behera. Hona xehakapena:

	Aitortutako eskubide garbiak		Aldaketaren portzentajea
	2010	2011	2011/2010
Diru-sarreraren kapituluak			
1 Zuzeneko zergak	2.612.630	2.469.072	-5
2 Zeharkako zergak	1.631.306	808.142	-50
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.379.449	1.387.080	1
4 Transferentzia arruntak	2.693.348	3.116.127	16
5 Ondare diru-sarrerak	318.813	221.961	-30
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	8.635.546	8.002.382	-7
6 Inbertsio errealen besterentzeak	200	0	-100
7 Kapital-transferentziak	1.018.119	216.674	-79
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6tik 9ra)	1.018.319	216.674	-79
Diru-sarrerak, guztira	9.653.865	8.219.056	-15

Nabarmendu behar dugu 2011n beherakada oso nabarmena gertatu dela zeharkako zergen (EIOZa) bilketan, udalerriko hirigintza-jarduerak behera egin duelako, azken urteetan goraldi txiki bat izan ondoren Erripagainako arloaren garapenaren eraginez; halaber, nabarmendu behar dugu

transferentzia arruntengatiko diru-sarrerek –Toki Ogasunen Funtsetik heldutakoek– 0,5 milioi egin dutela gora.

Ondoko taulan ikusten da diru-sarrera arrunt hauek eta EIOZek azkeneko urte hauetan izan duten bilakaera:

	2007	2008	2009	2010	2011
Diru-sarrera arruntak	9.289.739	6.542.838	7.176.128	8.635.546	8.002.382
Diru-sarrera arruntak, EIOZ kenduta	4.667.101	5.273.431	6.112.411	7.004.240	7.194.240
EIOZa	4.622.638	1.269.407	1.063.717	1.631.306	808.142

Kapital-eragiketetan, nabarmentzekoa da kapitaleko diru-sarrerak asko jaitsi direla, E planak desagertzearen ondorioz.

Ondorengo taulan udal-zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

	Aitortutako eskubideak		Aldaketaren 2011/2010
	2010	2011	
Diru-sarreraren kapituluak			
Lurraldeko kontribuzioa	1.570.043	1.587.058	1
Ibilgailuak	394.199	460.728	17
Lursailen balioa handitzea	296.989	124.102	-58
JEZ	351.399	297.184	-15
EIOZa	1.631.306	808.142	-50
Guztira	4.243.936	3.277.214	-23

Aldaketarik handiena ikusten da, lehen aipatu-tako EIOZaz gainera, lursailen balioaren handitzean, zeren eta 2010ean Sarrigurengo bigarren faseko etxebizitzak entregatu baitira, eta une horretan likidatu baitira Udalarekin gisa horretako zerga asko. Halaber, JEZaren gutxitzea nabarmendu behar dugu.

Ikusten da, halaber, lurralde-kontribuzioak eta ibilgailuengatikoak igoera positiboak izan dituztela, Udalerriko populazioak gora egin baitu.

Balorazio-ponentzia berria 2011ko martxoan onetsi zen. Udalak 2011ko ekitaldian aplikatutako tasak, EIOZi dagozkionak salbu, Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak agintzen dituen tasa beheerenero tartean daude, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraldeko kontribuzioa	0,1575	0,10 - 0,50
Jarduera Ekonomikoen Gainerako Zerga	1	1 - 1,4
Lurren balioaren igoera		
Gaurkotzearen koefizientea	2,1etik 2,8ra	2tik 3,8ra
Karga-tasa	12	8tik 20ra
Eraikuntza, instalazioa eta obrak	4,5etik 4,8ra	2 - 5

Tasa hauetan ez da aldaketarik izan 2009tik.

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin batean eginiko azterketan, egiaztatu ahal izan dugu orokorrean egoki izapidetu eta kontabilizatu direla. Hala eta guztiz ere, ondoren komentatuko ditugun gorabehera batzuk aurkitu ditugu.

- Ez dago kontrol edo/eta jarraipen mekanismo egokirik bide publikoaren okupazio efektibo eta enpresei zoru, hegalkin eta zorupeko erabilerengatik kobratutako kanona egiaztatzeko.

- Egiaztatu da Udalak 2008ko ekitaldian EIOZa dela eta 320.874 euroko zenbatekoa aitortu zuela erlijio-kongregazio batek udal barrutian eginiko obra batzuentzat. Zerga horiek ez ziren kobratu, zeren eta subjektu pasiboak auzi bat hasi baitzuen, ordaintzetik salbuetsita zegoela jo baitzuen. 2011n, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren ebazpen batzuk jaso dira, Udalaren interesen aurkakoak. Hori dela eta, zerga horiek, azkenean, ez dira kobratuko. 2012ko ekitaldira arte, Udalak ez du aitortu zerga horien deuseztapena. Horrenbestez, 2011ko diruzaintza-gerakinak 320.874 euroko gehiegizko balorazioa dauka.

Gure gomendioak:

- *Lizentziak eta tasak biltzeko prozedura kontrolatzeko eta jarraitzeko mekanismoak hobetzea.*

VI.7. HIRIGINTZA

Honela dago osatuta Udalaren hirigintzako departamentua/unitatea: bi udal arkitekto, aparejadore bat, obren buru bat eta administrari bat.

Eguesibarko Udal Plana 2000. urtean onartu zen behin-betiko, eta kontzejuen beste zenbait planeamendu-tresna ere badaude aldi berean.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak (LFOTU) hiru urteko epea ezarri zuen, 2006ko apirilera bitarte, indarrean diren planeamenduak homologatzeko eta egokitzeko.

Eguesibarko Udal Plan Orokorra berrikusteko prozedura 2006an hasi zen. 2011ko maiatzaren 16an, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren erabakiz, behin betiko onespina ematen zaio Eguesibarko Udalaren Plan Orokorriari –ibar osorako bakarra–, baina hiru hilabeteren buruan erabaki horretan zehazten diren zehaztapen guztiak jasoko dituen testu bateratu bat aurkezteko exijitzen da. Txosten hau egin den egunean, testu bateratu hori onartu gabe dago oraindik. Nafarroako Gobernuaren erabaki horren kontra errekurtsoa jarri du, gainera, herritar-elkarte batek.

Nafarroako Gobernuak baliorik gabe utzi zuen, urriaren 19ko erabakiz, planeamendu berriaren behin betiko onarpena, aurreikusten den egoitzen emendioa –21.435 etxebizitza– justifikatu gabe dagoela argudiatuz, besteren artean. Erabaki horrekin, plan horren behin-behineko onarpen-fasera atzeratu ziren berriro jarduerak. Gaur egun, Udala HAPO berria idazten amaitzen ari da, eta erabaki horretan ezarritako aldaketak sartu ditu.

Planeamendu berria indarrean jarri arte, oztopoak izanen dira Ibarren hirigintza planeatzeko, garatzeko, burutzeko eta gauzatzeko, Udalaren beraren eta Udaleko kontzejuen planeamendutresna desberdinak daudelako aldi berean.

Beste alde batetik, hirigintzako espedienteen kudeaketa, kontrola eta jarraipena erraztuko luke ten kudeaketa-prozedurarik, datu-baserik eta artxi-bo zentralizaturik ez dagoela ikusi da. Horrez gainera, hirigintzako udal enpresek gauzatzen duten hirigintza-jarduerari dagokionez –etxebizitzak eta bestelako obra batzuk bultzatzea eta eraikitzea–, Udalaren hirigintzaren kudeaketarako eta barne kontrolerako organoek ez dute behar bezalako jarraipenik egiten inbertsio horien garapen-prozesuaz.

Azkenik, adierazi beharra dago hirigintzaren kudeaketa, Kontuen Ganbera honen iritiz, gardentasun eta kontrol maila handienarekin egin behar dela, udal kudeaketako oinarriko arlo horretan baliabide ekonomiko handiak erabiltzen direlako. Udalak, jarduera hori egiteko, hirigintza sozietateak sortzeak eragotzi egiten du printzipio horiek betetzea, eta zailagoa da hartara antolamendua, udal kudeaketa eta kontrola. Konplexutasun hori are nahasgarriagoa bilakatzen da, hala ere, hirigintzako udal sozietateak Udalarentzat garrantzi handiko beste zenbait obra egin eta hark honi laga dizkiolarik.

Bestalde, Udalak udal inbentario bat egina dauka, bai eta Lurzoruaren Udal Ondarearen berriazko erregistro bat ere. Azken hori osatzen duten elementuen balioa 6,7 milioi eurokoa da 2011ko abenduaren 31n. Egindako azterketan, ikusi da biak gaurkotuta daudela eta, orokorrean, Udalak haien gaineko kontrol egokia duela, ezpada udal inbentarioaren azterketan aurkitu diren hurrengo gorabeherengatik:

- Udalak ez du kontrol egokirik birzitatze bidez lortzen diren lursailen gainean eta hirugarrenek erabilera pribatiboak izateko lagatzen direnen gainean. Hartara, 2011n, Udalak lursail bati alta eman dio lursail bati 442.173 euroko zenbatekoan –lursail hori 2005eko birzitatze batetik zetorren, eta akats bat tarteko ez zitzaion bere garaian alta

eman– eta beste lursail bati baja eman dio 119.225 euroko zenbatekoan –lursail hori 2005ean laga zen erabilera pribatibo baterako–.

- 2011ko ekitaldian, Andacelay SL sozietate publikoak berak egindako zenbait obra eta altzari-

hornikuntza doan laga dizkio Udalari. Lagapen hori, zeina kostu-prezioan erregistratu baitzen Andacelay SLren kontabilitatean, beste balio batekin kontabilizatu da Udalaren ibilgetuan. Hartara, honakoak dira lagatako elementuak eta balorazioetan ageri diren aldeak:

Kontzeptua	Andacelay, SLn ageri den lagapen-balioa	Udalan alta ematerakoan emandako balioa	Aldea
Udal eraikina	6.196.861	5.974.588	222.273
Udal eraikerako altzariak	328.042	385.852	(57.810)
Jostetarako eta aisiarako igerilekuak	1.465.449	1.402.109	63.340
Guztira	7.990.352 (*)	7.762.549	227.803

(*) Andacelay, SLren urteko kontuetan egiaztatutako datua.

Udal eraikinaren eta udal eraikerako altzarien kasuan, Udalak inbentarioan alta eman die obraren adjudikazio-balioaren arabera, haien egiazko kostuaren balioaren arabera jaso beharrean. Horrenbestez, abenduaren 31ko egoera-balantze laburtuan ageri den aktiboko eraikinen eta altzarien atala gutxiegi baloratuta eta gehiegi baloratuta daude –222.273 euroan eta 57.810 euroan, hurrenez hurren–, eta egoera-balantzearen pasiboko ondarearen atala, berriz, gutxiegi baloratuta dago –164.463 euroan–.

Igerilekuen kasuan, lagapenaren balioak, obra egitearen kostuaz gainera, EIOZa eta irekitzeko lizentziak jasotzen zituen. Sozietate publikoak ordaindu zituen horiek. Udalak elementu horri alta eman dio soilik obraren exekuzioaren kostuari dagokion lagapen-balioan finkatuta. Horrenbestez, 2011ko abenduaren 31ko egoera-balantze laburtuaren aktiboko eraikinen atala 63.340 euroan gutxiegi baloratuta dago, eta egoera-balantzeko pasiboko ondarearen atala, berriz, 63.340 euroan gutxiegi baloratuta dago.

Gure gomendioak:

- *Udalak bere antolamendua erabakitzeko ahalmena eta hirigintza kudeaketako egokien irizten dion modua hautatzeko autonomia gorabehera, jarduera hori hirigintza-sozietateen bidez kudeatzeko egungo modua, eta kudeaketa modu hori Udalak bilatu beharreko interes publikoari ongi egokitzen zaion aztertzea.*

- *Udaleko hirigintza-alorra berriro antolatzea, Udalak berak zein berak partaidetza duen sozietateek bideratzen dituzten hirigintza-jardueren kudeaketa, kontrola eta jarraipena modu egokian egin ahal izaten dadin.*

- *Udalak diseinatzea eta aplikatzea Udalaren kapitaleko sozietateei, jarduera orotan, ezarri beharreko finantza- eta eraginkortasun-kontrolerako prozedura juridiko eta teknikoak.*

- *Birzatatze bidez jasotzen diren lursailei eta erabilera pribatiborako lagatzen diren lursailei dagokien ibilgetuaren zatiaren gaineko kontrola areagotzea.*

- *Lagapenetatik heldu diren ibilgetu-alta guztiak beren egiazko kostuaren arabera erregistratzea.*

VI.8. ANDACELAY, SL SOZIJETATE PUBLIKOIA

Eguesibarko Udalak 2004an eratu zuen Andacelay, SL sozietate publikoia, Udalak osorik harpidetu eta ordaindutako 4.000 euroko kapital sozialarekin.

Sozietate horren eginkizunen artean, eginkizun bakarrak izan gabe, helburu hauek daude: a) Aholkularitza teknikoa eta juridikoa ematea, bai plan-gintzari bai hirigintza-kudeaketari dagokienez; b) Lurzoruaren sustapena egitea, haren eraldaketaren eta urbanizazioaren bidez; c) Urbanizatzetik heldu diren obrak kudeatzea eta ustiatzea, eginkizun horien emakida lortuz gero; d) Lur-zatiak besterentzea; e) Etxebizitzaren sustapena egitea eta zaharberritzea eta industria-nabeen sustapena egitea, salmenta-bidez zein alokairu gisa; f) Erki-dego-ekipamenduaren sustapena eta kudeaketa egitea; h) Aisia-jardueren sustapena egitea; i) Ostalaritza eta sukaldaritza; j) Administrazio-zerbitzuak, logistikoak eta entitate publiko eta pribatuekiko komunikazioa, eta k) Udalaren lur-ondarearen administrazioa, higiezinaren merkatuan esku hartuz. Helburu horiek helburu hau bera edo gisakoa

duen beste sozietate batzuen partaidetzaren bidez bete ditzake.

Andacelay, SLk Eguesibarko Udalak etxebizitza babestuak sustatzeko doan lagatako lursailen multzo bat jaso zuen; lursail horiek gero sozietate mistoentzat besterendu ziren (ikus VI.9 atala).

Andacelay, SL sozietatearen 2011ko abenduaren 31ko urteko kontuak kanpoko kontu-ikuskatzaileek egindako ikuskaritza finantzarioko txosten batean aztertu ziren, eta iritzia aldekoa izan zen. Sozietateak ez du langilerik.

Sozietateak 2011ko abenduaren 31n duen ondare garbia 3,6 milioi eurokoa da; 2010eko abenduaren 31ko ondare garbia, berriz, 13,1 milioi eurokoa zen. Jaitsiera hori etorri da kostu-balioan eginiko doako lagapenetatik, bata udal bulegoen eraikinarena -6,5 milioi eurokoa-, eta bestea Sarrigurengo udal igerilekuena -1,5 milioi euro-. Lagapen hori Andacelay SLren Administrazio Kontseiluaren 2011ko apirilaren 18ko aktan onetsi zen, eta Osoko Bilkurak 2011ko maiatzean eginiko bilkuran onetsi zuen. Halaber, Andacelay SLk esku-aldaketa horren BEZaren ordainketa hartu zuen bere gain -1,5 milioi euro-, eta borondatezko erre-serbak zenbateko horren arabera beheratu zituen.

2011ko ekitaldiko emaitzak 5.000 euroko galarak ekarri ditu. Aktibo zirkulatuaren "Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak" 2,3 milioi eurokoa da.

2011ko ekitaldian, Andacelay, SLk ez du obra berririk lizitatu.

Aurreko ekitaldietako txostenetan jada adierazi genuen bezala, 4.000 euroko kapitala eta langilerik eta kudeaketarako bere baliabide berezirik ez duen udal enpresa publiko batek 7,3 milioi ingururaino iristen direla begiz jo diren inbertsioak (BEZik gabe) egin ditu Udalarentzat. Gainera, partaidetzarik handiena berak duen bi sozietate mistoren bitartez -hauek ere ez dute langilerik eta sozio pribatu berak kudeatzen ditu-, 348 etxebizitza babestu ari da eraikitzen, sozio pribatu horren bitartez; enpresa misto horiek Udalaren lur-ondareko lur-zatietan egiten dute eraikuntza-jarduera hori Udalak udal enpresa publikoari doan laga eta sozietateok hari erositako lur zatietan.

2012ko maiatzean, sozietatearen batzorde orokorrak erabakita (Osoko Bilkurak osatua) alkatea kendu zen bertako lehendakari kargutik, eta oposizioa zinegotzi bat izendatu zen, nahiz eta udal idazkariak legez kontraktasuneko ohartarazpena egin. Alkateak izendapenaren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuen Nafarroako Auzitegi Nagusian. Auzi-

tegi horrek 2012ko azaroan ebatzi zuen lehendakaria ordezteko erabakia deuseza dela.

VI.9. GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21 SA ETA GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21-II SL SOZIESTATE MISTOAK

VI.9.1. Gestión y Promoción Egüés 21, SA

2005eko uztailaren 5ean eratu zen Gestión y Promoción Egüés 21, SA, 300.000 euroko kapital sozialarekin; kapital horren ehuneko 51 Andacelay, SL-k harpidetu zuen eta ehuneko 49 bazkide pribatu batek (NASIPA, SL). Bazkide pribatuaren aldeko kudeaketa-saria ehuneko 4koa da.

Sozietatearen helburuak higiezin mota oro erosi eta eraikitzea, higiezinaren sustapena, urbanizazioa, kudeaketa eta merkaturatzea dira, eta orobat horiekin lotutako eta horien osagarri den beste edozein jarduera ere. Eguesibarko Udalean etxebizitzak sustatu eta eraikitzea izan du jarduera nagusia.

Sozietate horrek 2005ean lursail bat erosi zion Andacelay SLri babes ofizialeko 66 etxebizitza sustatzeko, eta beste bat 2007an prezio tasatuko 114 etxebizitza eta babes ofizialeko 48 etxebizitza sustatzeko. Bi lursail horiek Sarrigurenen daude, eta aipatutako etxebizitzak egiteko obrak bazkide pribatu batek eraman zituen aurrera.

Txosten hau idazteko datan, etxebizitza bat eta zenbait etxabe eta garaje saltzeke daude.

Gestión y Promoción Egüés 21, SA sozietatearen urteko kontuez, 2011ko abenduaren 31n -I. Eranskinean sartu ditugu, informaziorako-, kanpoko kontu-ikuskatzaileek egindako finantzen kontu-ikuskatze bat egin da; haiek beren iritzia eman dute, txostenean Administrazio Kontseiluko kideek -Administrazio Kontseilu hori Udalaren ordezkariak osatzen dute soil-soilik- multzotik kanpokoak izan baina antzeko helburu soziala duten sozietateetan izan ditzaketen karguei buruz informaziorik ez delako salbuespenarekin; Kontseilu hori Udalaren hiru ordezkariak eta bi kontseilari pribatuk osatzen dute. Kontu-ikuskaritzako txostenak gehitzen duenaren arabera, informazio falta hori justifikatzeko sozietateak dio informazioa emateak kontseilarien beraien intimitaterako eskubidea urra dezakeela. Gure iritzian, informazio hori Kapitaleko Sozietateen Legearen arabera eska daitekeen informazioa izatez gainera, ez da ahaztu behar enpresaren kapitalaren zatirik handiena publikoa dela eta, horrexegatik, erabateko gardentasunaren printzipioak izan behar duela nagusi.

Milioi bat euroko ondare garbia du; ekitaldiko emaitza negatiboa izan du, -36.000 eurokoa; epe

luzerako 0,13 milioi euroko zorra du, eta 1,1 milioi euroko maniobra-funtsa dauka. Sozietate honek ez du langilerik.

2012ko urriaren 26an, aurreko sustapenei buruz kalkulatu den etekina, zergak ordaindu baino lehen, 3,47 milioikoa da, eta horrek sustapenen guztizko kostuaren gaineko ehuneko 9 egiten du. Sustapen horien guztizko etekina, zergak ordaindu baino lehen, saltzeko dauden unitate guztiak saltzen direla jota, 4,33 milioikoa litzateke, eta horrek ehuneko 11 eginen luke guztizko kostuaren gainean. Kudeaketa-komisioengatik, bazkide pribatu bati 0,7 milioi euro ordaindu zaizkio guztira.

Gure gomendioak:

- *Sozietatearen txostenean indarrean dagoen araudiak eskatzen duen informazio guztia ematea, sozietatearen urteko kontuetan erabateko gardentasuna izan dadin, sozietate publiko guztiei eskakiekeen bezala.*

- *Etxebizitzen sustapena ia amaituta dagoenez, bidezkoa da sozietate misto hori likidatu eta desegitea.*

VI.9.2. Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL

Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL sozietatea 2010eko martxoaren 29an osatu zen. 3.100 euroko kapital soziala ezarri zen; kapital horren ehuneko 51 Andacelay, SL-k harpidetu zuen, ehuneko 48,97 bazkide pribatu batek (NASIPA, SL) eta ehuneko 0,03 Gestión y Promoción Egüés 21, SA sozietateak. Bazkide pribatuaren aldeko kudeaketa-saria ehuneko 2koa da.

Sozietatearen helburu soziala edozein eratako higiezinaren sustapena egitea eta eraikitzea da eta, bereziki, Eguesibarko udalerrian, Erripagañako udalez gaindiko plan sektorialaren esparruan etxebizitzak bultzatzea, sustatzea eta eraikitzea.

Sozietate honen Kontseiluaren 2010eko urriaren 26ko aktan, lehiaketa publikoan lortutako puntuazioetan oinarrituz, babes ofizialeko 138 etxebizitza horiek eraikitzeko lanak NASIPA, SL, enpresa mistoko bazkide pribatuari adjudikatzea erabakitzen da, 11,9 milioi eurotan (BEZ kanpo), ehuneko 15 inguruko beherapen batez. Proiektua aztertu ondoren, aurreikusitako gabe zeuden obra-unitate batzuk azaldu dira; unitate horiek 411.205 eurotan gauzatuko dira azkenik (BEZ kanpo); horrek ehuneko 3,5eko gehikuntza bat eraginen du hasierako prezioaren gainean.

Gestión y Promoción Egüés 21, SA sozietatearen urteko kontuez, 2011ko abenduaren 31n –I.

Eranskinean sartu ditugu, informaziorako–, kanpoko kontu-ikuskatzaileek egindako finantzen kontu-ikuskatze bat egin da; eta iritzia aldekoa izan da.

Sozietatearen aktiboko kontusailik garrantzitsuen izakinena da, eta 11,7 milioi egiten du. Zenbateko hori Andacelayk sozietatea eratzeko lehiaketan 4,1 milioiko prezioan besterendutako hiru lursailei dagokie, gehi babes ofizialeko 138 etxebizitza 7,6 milioiko prezioan erosteko kostuak. Pasi-boan, epe luzean, etxebizitza babestuak eraikitzearekin lotutako mailegua nabarmendu behar dugu –8 milioikoa da– eta epe laburrean, berriz, “bestelako hartzekodunak” ataleko zenbatekoa, 3,8 milioi euro egien duena eta ia guztiz bezeroentzako aurrerakinei dagozkienak. Ekitaldiko emaitzak 410.404 euroko galerak dakartza. Ustiapen kontuko kontusail nagusia kudeaketarengatik komisioa da –472.000 euro–, obrak egiteko ardura duen enpresarena –enpresa hori, gainera, sozietateko bazkide pribatua da–. Sozietate honek ez du langilerik.

Txoten hau idazteko egunean, eraikuntza lanak amaituta daude, eta 47 etxebizitza eta etxabe nahiz garaje libre batzuk saltzeke daude. Sustatutako etxebizitza guztien ehuneko 66 saldu dira.

2012ko urriaren 20an, sustapen horren etekina, zergak ordaindu baino lehen, 3 milioikoa da, eta horrek sustapenen guztizko kostuaren gaineko ehuneko 9 egiten du. Izakin guztiak saltzen direnarako espero den etekina, zergak ordaindu aurretik, 4,65 milioikoa izanen da; hau da, sustapenaren guztizko kostuaren ehuneko 23,82.

Azken batean, sozietate misto horien bazkide pribatuak honako ordainsariak jasoko ditu:

- Sozietate horiek kudeatzeagatik kobratzen duen komisioa.

- Sozietate mistoen kapitalaren ehuneko 49ko partaidetza izateagatik etxebizitzen sustapenetatik lortzen dituen amaierako etekinak.

- Etxebizitza-sustapenetako eraikuntza obrak egiteagatik zuzenean lortzen dituen etekinak.

Gomendatzen dugu sozietate misto hori likidatu eta desegitea, behin sustapena amaituta.

Txosten honen arduradun den auditore Ignacio Cabeza del Salvador jaunak proposatuta egin da lan hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

I. GEHIGARRIA: "Gestión y Promoción Egüés 21, SA" sozietate mistoaren 2011ko ekitaldiari dagozkion egoera-balantze laburtua eta galeren eta irabazien kontu laburtua

2011ko egoera-balantze laburtua

Aktiboa

	2010	2011
A. Aktibo ez arrunta	362	362
V. Epe luzeko inbertsio finantzarioak	362	362
B. Aktibo arrunta	1.357.082	1.140.167
II. Izakinak	991.679	795.227
III. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	66.886	76.353
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	298.517	268.587
Aktiboa, guztira	1.357.444	1.140.529

Ondare garbia eta pasiboa

	2010	2011
A. Ondare garbia	1.040.306	1.003.927
A.1 Funts propioak	1.040.306	1.003.927
Kapital diru-sarrera	300.000	300.000
III. Erreserbak	666.814	740.306
VII. Ekitaldiko emaitza	73.492	(36.379)
A.3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	0	0
B. Pasibo ez-korrontea	293.845	129.583
II. Epe luzeko zorrak	293.845	129.583
C. Pasibo korrontea	23.293	7.019
III. Epe laburreko zorrak	9.128	12.772
V. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	14.165	(5.753)
Ondare garbia eta pasiboa, guztira	1.357.444	1.140.529

2011ko galera eta irabazien kontu laburtua

	2010	2011
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	2.666.361	171.296
2. Produktu bukatuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldaketa	-2.467.043	-184.599
3. Enpresak, bere aktiborako, egindako lanak	0	0
4. Hornidurak	0	0
5. Bestelako ustiatze diru-sarrerak	0	0
6. Langile-gastuak	0	0
7. Bestelako ustiatze-gastuak	-59.620	-16.823
8. Ibilgetuaren amortizazioa	0	0
9. Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzen egozpena	0	0
10. Gehiegizko hornidurak	0	0
11. Ibilgetua besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0	0
13 Bestelako emaitzak	-1.313	1.020
A) USTIATZEAREN EMAITZA	138.385	-29.106
14. Finantza bidezko diru-sarrerak	0	4
15. Finantza-gastuak	-33.397	-6.101
16 Tresna finantzarioetako balio-aldaketa arrazoizkoa	0	-1.176
17. Aldaketako aldea	0	0
18. Tresna finantzarioak besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0	0
B) EMAITZA FINANTZARIOA	-33.397	-7.273
C) ZERGA AURREKO EMAITZA	104.988	-36.379
17. Etekinen gaineko zergak	-31.496	0
D) EKITALDIKO EMAITZA	73.492	-36.379

II. GEHIGARRIA: “Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL” sozietate mistoaren 2011ko ekitaldiari dagozkion egoera-balantze laburtua eta galeren eta irabazien kontu laburtua

2011ko egoera-balantze laburtua

Aktiboa

	2010	2011
A. Aktibo ez arrunta	361	361
V. Epe luzeko inbertsio finantzarioak	361	361
B. Aktibo arrunta	6.581.494	12.163.576
II. Izakinak	5.712.196	11.669.261
III. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	760.747	388.581
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	108.551	105.734
Aktiboa, guztira	6.581.855	12.163.937

Ondare garbia eta pasiboa

	2010	2011
A. Ondare garbia	3.100	(407.304)
A.1 Funts propioak	3.100	(407.304)
Kapital diru-sarrera	3.100	3.100
III. Erreserbak	0	0
VII. Ekitaldiko emaitza	0	(410.404)
A.3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	0	0
B. Pasibo ez-korrontea	3.529.322	8.043.545
II. Epe luzeko zorrak	3.529.322	8.043.545
C. Pasibo korrontea	3.049.433	4.527.696
I. Kreditu entitateekiko zorrak	730.076	0
III. Epe laburreko zorrak	579.446	77.125
V. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	1.739.911	4.450.571
Ondare garbia eta pasiboa, guztira	6.581.855	12.163.937

2011ko ekitaldiko galera eta irabazien kontu laburtua

	2010	2011
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	0	0
2. Produktu bukatuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldaketa	5.712.196	5.957.065
3. Enpresak, bere aktiborako, egindako lanak	0	0
4. Hornidurak	-4.275.666	-5.468.497
5. Bestelako ustiatze diru-sarrerak	0	0
6. Langile-gastuak	0	0
7. Bestelako ustiatze-gastuak	-1.179.828	-676.763
8. Ibilgetuaren amortizazioa	0	0
9. Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzen egozpena	0	0
10. Gehiegizko hornidurak	0	0
11. Ibilgetua besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0	0
13 Bestelako emaitzak	0	7.017
A) USTIATZEAREN EMAITZA	256.702	-181.178
14. Finantza bidezko diru-sarrerak	0	0
15. Finantza-gastuak	-256.702	-229.226
16 Tresna finantzarioetako balio-aldaketa arrazoizkoa	0	0
17. Aldaketako aldea	0	0
18. Tresna finantzarioak besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0	0
B) EMAITZA FINANTZARIOA	-256.702	-229.226
C) ZERGA AURREKO EMAITZA	0	-410.404
17. Etekinen gaineko zergak	0	0
D) EKITALDIKO EMAITZA	0	-410.404